INGENIARITZA DUALAREN UNIBERTSITATE ESKOLA
ESCUELA UNIVERSITARIA DE INGENIERÍA DUAL

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

# INGENIARITZA DUALEKO UNIBERTSITATE ESKOLAKO GRADUKO IKASKETEN GESTIORAKO 2023/2024 IKASTURTEKO ARAUTEGIA ETA ARLO HORRETAKO BESTE ARAUTEGI BATZUK

# Aurkibidea

GRADUKO IKASKETEN GESTIORAKO ARAUTEGIA, 2023/2024 IKASTURTERAKO....3
I. KAPITULUA....3
Unibertsitatean sartzea....3
Eskariak aurkezteko epeak eta lekuak....4
Onarpen-irizpideak eta onarpenaren baieztapena....4
II. KAPITULUA....5
Matrikulak eta tasak....5
Matrikula berriko irakasgaiak....5
Matrikula bakarra....5
Matrikula-epeak....5
Matrikula egiteko aurkeztu beharreko agiriak....6
Matrikula ordaintzea....7
Matrikula baliogabetzea....7
Ohorezko matrikulak....8
Bigarren matrikulaldia....8
III. KAPITULUA....8
Irakaskuntza-ikaskuntzaren plangintza....8
IV. KAPITULUA....11
Sari bereziak eta bikaintasunez graduatua....11
Bikaintasunez graduatua....12
V. KAPITULUA....12
Salbuespenezko deialdia (graziakoa)....12
VI. KAPITULUA....13
Espediente akademikoko batez besteko nota graduko ikasketetan....13
GRADUKO TITULAZIO OFIZIALETAKO IKASLEEN EBALUAZIO ARAUTEGIA....14
JARRAITZEKO ETA ENPRESA-BILAKETARAKO ARAUTEGIA....25
INDUSTRIA-PROIEKTUA/GRADU AMAIERAKO LANA EGIN ETA DEFENDATZEARI BURUZKO ARAUTEGIA....29
GRADUKO IKASKETETAN KREDITUAK TRANSFERITZEKO ETA AITORTZEKO ARAUTEGIA....32
I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK....32
II. KAPITULUA. KREDITUAK AITORTZEA....32
III. KAPITULUA. UPV/EHU-N KREDITUAK AITORTZEKO PROZEDURAK....37
IV. KAPITULUA. KREDITUAK TRANSFERITZEA....40

# GRADUKO IKASKETEN GESTIORAKO ARAUTEGIA, 2023/2024 IKASTURTERAKO

# I. KAPITULUA

## Unibertsitatean sartzea

***1. artikulua.*** *Onarpen-prozedura*

Aintzat hartuta maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa, Hezkuntzari buruzkoa (abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak aldatua); ekainaren 6ko 412/2014 Errege Dekretua, graduko uniber-tsitate ikasketa ofizialetan ikasleak onartzeko prozeduren oinarrizko arautegia ezartzen duena; uztailaren 29ko 310/2016 Errege Dekretua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko azken ebaluazioko proben ezaugarriak arautzen dituena; abenduaren 9ko 5/2016 Errege Lege Dekretua, 8/2013 Lege Organikoa ezartzeko zehaztutako egutegia zabaltzeko premiazko neurriei buruzkoa; eta urtarrilaren 25eko PCM/63/2023 agindua, zeinaren bidez zehazten diren Unibertsitatera Sartzeko Batxilergoaren Ebaluazioaren ezaugarriak, diseinua eta edukia, eta ezartzen diren 2022/23 ikasturteko mugaegunak probak egiteko eta kalifikazioen berrikuspena ebazteko; horiek guzti aintzat hartuta, unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrak onartu du 2023ko otsailaren 23ko bileran, UPV/EHUko graduko ikasketetara sartu eta ikasketetan onartua izateko Prozedura 2023/2024 ikasturterako.

***2. artikulua.***

1. Ingeniaritza Eskolan sartzeko eskaera egin nahi duten ikasleek aukera hauetakoren bat erabili beharko dute:

- Unibertsitatera sartzeko proba UPV/EHUn egin duten ikasleak.
- Unibertsitatera sartzeko proba UPV/EHUtik kanpo egin duten ikasleak.
- Lanbide-heziketako goi-mailako teknikari-titulua, diseinu eta arte plastikoetako goi-mailako teknikari-titulua edo goi-mailako kirol-teknikari titulua edo baliokidea duten ikasleak.
- Europako batxilergoko titulua edo nazioarteko batxilergoko titulua duten ikasleak.
- Europar Batasuneko estatuetako hezkuntza-sistemetatik datozen ikasleak edo arlo honetan aplikagarriak diren nazioarteko elkarrekikotasun-hitzarmenak dituzten beste estatu batzuetako hezkuntza-sistemetatik datozenak, baldin eta betetzen badituzte kasuan kasuko estatuko unibertsitateetara sartzeko eskatzen zaizkien baldintza akademikoak.
- 25 urtetatik gorakoentzako sarrera-proba gainditu duten ikasleak. Proba UPV/EHUn egin dutenek izango dute lehentasuna, eta horien ondoren joango dira proba beste unibertsitate publiko batean egin dutenak. Probak unibertsitate ez publikoetan gainditu dituzten ikasleen eskariak banan-banan aztertuko dira.
- 45 urtetatik gorakoentzako sarrera-proba UPV/EHUn gainditu duten ikasleak.
- Lan-esperientzia egiaztatuz sartzeko bidea aukeratu duten ikasleak.
- Unibertsitateko titulazioa daukaten ikasleak.

- Europar Batasuneko estatuetako hezkuntza-sistemetatik datozen ikasleak, baldin eta ez badituzte betetzen beren hezkuntza-sistemaren arabera unibertsitatetara sartzeko eskatzen zaizkien baldintza akademikoak, eta Europar Batasunekoak ez diren ikasleak izanik Batxilergoko titulua Espainiako sistemara homologatuta badute. Modalitate honen barruan, USE egin ahal izango da UPV/EHUn.

2. Sarrera-eskariak egiteko aurkeztu beharreko agiriak honakoak dira:

- Izena emateko dosierr, behar bezala beteta eta sinatuta.
- NANaren edo pasaportearen fotokopia.
- Currículum Vitae.
- Honako hauen fotokopia erkatua edo EKSdunak: unibertsitatera sartzeko probako txartela; Lanbide Heziketako ikasketen ziurtagiri akademikoa, deialdia eta azken nota zehaztuta, unibertsitatean egindako ikasketen ziurtagiri akademikoa (titulazioa UPV/EHUn 1990aren ostean egin duten ikasleek izan ezik), UNEDek emandako ziurtagiria, edo unibertsitatera sartzeko aukera egiaztatzen duen beste edozein agiri.
- Inskripzio eta sarbide tasen abonua.

# Eskariak aurkezteko epeak eta lekuak

***3. artikulua.***

Aurrematrikula dokumentazioa Ingeniaritza Eskolako Idazkaritzan eman behar da, idazkaritzara bidali behar da posta elektronikoz

Lehen aukeratze-fasearen ondoren plaza hutsik geratuz gero, ohiz kanpoko epe bat ezarriko da.

# Onarpen-irizpideak eta onarpenaren baieztapena

***4. artikulua.***

Ikastegiko Aukeratze Epaimahaiak aukeratuko ditu hautagaiak, elementu hauek kontuan hartuta, betiere eskainitako plaza-kopuruaren arabera:

- Unibertsitate-irakaskuntzetara sartzeko onarpen-nota edo beste titulazio batzuetan lortutako onarpen-nota, ekainaren 6ko 412/2014 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera.
- Proba psikoteknikoak, gaitasun mekanikoa, espaziala, ahozkoa eta arrazoiketa neurtzeko.
- Banakako elkarrizketa, gaitasun hauek baloratzeko: autokontzeptua; autonomia eta dinamismoa; parte-hartzea, inplikazioa eta konpromisoa erabakiak hartzean; talde-lana; erantzukizuna; presioarekiko tolerantzia; eta lidergoa.

***5. artikulua.***

Ikastegiko onarpen-probak amaitu eta hurrengo 5 egun balioduneko epean bidaliko zaie hautagaiei proba horien emaitza .

Onartuz gero, onarpena behin betikoa izan dadin, beharrezkoa da ikastegiko Idazkaritzan plaza erreserbatzeko eskubideak ordaindu izanaren agiria bidaltzea, onarpenaren jakinarazpenean adierazitako azken egunaren aurretik. Diru-kopuru hori matrikularen guztizko zenbatekoari kenduko zaio.

Ondoren matrikulari uko egiten dion ikasleak ez du diru-kopuru hori berreskuratuko, ohiz kanpoko kasuetan izan ezik, baldin eta, eskaera egin ondoren, Ingeniaritza Eskolak berariaz baimentzen badu.

# II. KAPITULUA

## Matrikulak eta tasak

## Matrikula berriko irakasgaiak

***6. artikulua.***

Ikasturte bakoitzean, Graduko titulazioetako ikasleek aurreko mailetan gainditzeke dituzten irakasgai guztietarako egin beharko dute matrikula, eta matrikulan gehienez ere 60 kreditu berri sartu ahal izango dituzte. Guztira, kreditu berriak eta errepikatutako kredituak batuta, ezin izango da 90 kreditu baino gehiagorako matrikula egin.

## Matrikula bakarra

***7. artikulua.***

Ikasturte bakoitzerako matrikula bakarra izango da bi lauhilekoetarako. Salbuespena da Gradu Amaierako Lanerako matrikula, gradu-amaierako lana egin eta defendatzeari buruzko arautegiaren araberakoa baita, eta, horri jarraituz, matrikularako ohiko deialdian edo horretarako zabaldutako beste epe batean egin ahal izango da. Hala ere, hori gorabehera, 14. artikuluan jasotako bigarren matrikulazio-aldia baino ezin izango du egin.

Ikasleek aurreko mailetan gainditzeke dituzten kreditu guztietarako egin beharko dute matrikula.

Irakaskuntza-tasak –guztiak edo zati bat– ordaindu gabe badaude, ikastegiak ez du ikasketei buruzko ziurtagiririk emango. Gainera, matrikula bertan behera uztea eragin dezake horrek, eta ikasleak ez du ordura arte ordaindutakoa berreskuratzeko eskubiderik izango.

## Matrikula-epeak

**Onarpen berriko ikasleak**

***8. artikulua.***

1. deialdian onartutako ikasle berriek matrikula egiteko eta agiriak bidaltzeko epea 2023ko uztailaren 24an hasi eta 28an amaitzen da. Ezohiko deialdian onartutako ikasleek 2023ko irailaren 1 eta 4an egin ahalko dute matrikula.

### Gainerako ikasleak

***9. artikulua.***

Goiko mailetako ikasleek, matrikula egiteko eta agiriak aurkezteko, 2023ko uztailaren 10tik 18ra izango dute.

Graduko ikasketak hasi dituzten eta aurreko ikasturtean matrikulatu ez diren ikasleek matrikulazio-aldia baino lehen aurkeztu beharko dute eskabidea. Ikastegiko Aukeratze Epaimahaiak ebatziko du eskaera hori, graduan jarraitzeko araudiaren irizpidearen arabera.

## Matrikula egiteko aurkeztu beharreko agiriak

***10. artikulua.***

1. Onarpen berriko ikasleek honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

1) Datu estatistikoen inprimakia.

2) Matrikularen ordainketa helbideratzeko inprimakia.

3) Behar izanez gero, matrikulako prezio publikoak ordaintzetik salbuetsita egoteko edo prezio murriztua ordaintzeko eskubidea egiaztatzen duen agiria, eta administrazio egoitzaren ziurtagiria edo erroldatze ziurtagiria, unibertsitateko zerbitzu akademikoengatik ordaindu beharreko prezioak finkatzeko Eusko Jaurlaritzak onartzen duen aginduaren arabera.

4) Gizarte Segurantzan alta emanda egotearen agiria.

5) Zintzotasunez eta portaera etikoz jokatzeko konpromiso adierazpena.

6) Argazkia

7) Hala badagokio, Batxilergoko ikasleentzako ohorezko azken matrikula lortu izanaren ziurtagiria.

8) Espedientea lekualdatzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria, matrikula egin duten unibertsitatetik eta/edo ikastetxetik, UPV/EHUko ikasleentzat izan ezik.

9) Unibertsitateko ikasketak hasita dituzten ikasleek espedientea lekuz aldatu beharko dute.

Matrikula egin ondoren ikasleari eman beharreko agiriak:

- Matrikularen frogagiria.
- Erabiltzailearen informaziorako dokumentua, eta GAURen eta posta elektronikoaren pasahitza.
- Matrikularen zenbatekoaren agiria, eta kontzeptu hauen xehetasuna:
  1) 1. matrikulako irakasgaiak.
  2) Kredituen aitorpenaren ondoriozko deskontuak.
  3) Espediente akademikoaren irekiera.
  4) Derrigorrezko eskola-asegurua.
  5) Unibertsitate-txartela.

6) Matrikula ordaintzeko epeak.

2.Gainontzeko ikasleek honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

1) Matrikulatu beharreko irakasgaiak aukeratzeko formularioa

2) 3. puntuko 10. artikuluko dokumentazioa.

Matrikula egin ondoren ikasleari eman beharreko agiriak:

- Matrikularen frogagiria.
- Matrikularen zenbatekoaren agiria, eta kontzeptu hauen xehetasuna:
  1) Irakasgaiak/kredituak.
  2) Kredituen aitorpenaren ondoriozko deskontuak.
  3) Derrigorrezko eskola-asegurua.
  4) Matrikula ordaintzeko epeak.

# Matrikula ordaintzea

***11. artikulua.***

Irakaskuntza-tasak matrikulazio-aldia hasi baino lehen jakinaraziko dira, honako hauekin batera: matrikula eta guztizko zenbatekoaren epe guztiak.

# Matrikula baliogabetzea

***12. artikulua.***

1. Nahiz eta ikasleek legeak agindutako epe eta moduan eskatu matrikula baliogabetzea, ez zaie inolaz ere matrikularen zenbatekoa itzuliko. Hona hemen salbuespena, UPV/EHUren indarreko arautegian jasotako ezohiko egoerak.

2. Matrikularen prezioaren zatiren bat edo ezer ez ordaintzeak espediente akademikoa etetea ekarriko du.

3. Matrikula baliogabetzeko epea urte bakoitzeko abenduaren 31n bukatuko da. Matrikula osorik baliogabetuko da beti, eta ezin izango dira irakasgai batzuk soltean edo matrikularen zati bat bakarrik baliogabetu. Data horretatik aurrera, ez da matrikularik baliogabetuko, baldin eta unibertsitateak beren-beregi baimena ematen ez badu, ikasleak eskaria egin eta gero.

4. Matrikula ez ordaintzeagatik espediente akademikoa etenda daukan ikasleak ordaintzeke daukan kopurua zor izango dio unibertsitateari; erabakia emango da zorduna dela adierazteko, eta jakinarazpena egingo zaio.

5. Zorren bat dutenek ezin izango dute aurrerantzean beste matrikularik egin. Halaber, ez zaie emango titulurik edo ziurtagiririk, ez eta espediente akademikoari buruzko informaziorik ere, eta ezin izango dute espedientea lekuz aldatu. Era berean, ezin izango dituzte UPV/EHUren zerbitzuak erabili.

6. Zorra ordaintzen duen unean, berriro aktibatuko zaio espediente akademikoa ikasleari.

7. Matrikula baliogabetu duten ikasle berriek berriro eman beharko dute izena unibertsitatean ikasten berriz hasi nahi izanez gero.

## Ohorezko matrikulak

***13. artikulua.***

Ohorezko matrikulak prozedura honen arabera kudeatuko dira:

a) Ikaslearen kalifikazioa 9,7 edo handiagoa bada, ohorezko matrikulak eman ahal izango dira irakasgaietan; zehatzago: ohorezko matrikula bat hogei ikasle-multzo bakoitzeko edo hogeitik beherako ikasle-multzo bakoitzeko. Irakasgai/ikasketa-plan bateko ikasle guztiak zenbatzeko, ez dira kontuan hartuko taldeak, eta bakartzat hartuko da akta.

b) Gradu Amaierako Lanaren kasuan, gehienez ikasleen %5i eman ahal izango zaio ohorezko matrikula, kontuan hartuta ikastegiak defentsarako antolatutako aldi bakoitzean titulazio bakoitzerako guztira matrikulatu den ikasle-kopurua.

c) Ohorezko matrikulagatik ikasleak prezioak murrizteko daukan eskubidea ikasketa bereko hurrengo matrikulako prezio publikoan ezarriko da eta kreditu horrekin gainditutako kreditu kopuru bererako izango dira.

d) Deskontu hori UPV/EHUko ikasleei baino ez zaie egingo; ez zaie, beraz, preziorik murriztuko beste unibertsitate batzuetatik etorritako ikasleei, unibertsitateok publikoak nahiz pribatuak izan.

e) Batxilergoko irakasgaietan lorturiko ohorezko matrikulek ez dute murrizketarako eskubiderik ematen. Hala ere, kalifikazio orokorrean ohorezko matrikula duten ikasleek matrikularen prezio publikoa ez ordaintzeko eskubidea izango dute unibertsitatean lehen aldiz matrikulatzean.

## Bigarren matrikulaldia

***14. artikulua.***

Bigarren seihilekorako bigarren matrikulazio-aldia zabaltzen duten ikastegiek Ikastegiko Batzarrean onartu beharko dute horretarako erabakia. Matrikula berri hori idazkaritzetan egingo da, martxoa baino lehenago. Bigarren matrikulazio-aldia irakasgai hauetarako baino ez da zabalduko:

a) Aurrebaldintzak dituzten irakasgai edo mailetarako.

b) Plaza hutsak dituzten hautazko eta aukera askeko irakasgaietarako.

c) Enborreko eta nahitaezko irakasgaietarako, Eskolako batzordeak hala onartu badu.

# III. KAPITULUA

## Irakaskuntza-ikaskuntzaren plangintza

***15. artikulua.*** *Prestakuntza-programa eta irakaskuntza-gidak*

1. Ikasturte bakoitzean, matrikula-epea ireki aurretik, ikastegiak titulazioen plangintzari buruzko informazioa argitaratuko du webgunean, eta, gutxien dela, ondoko hauek zehaztuko ditu: ikasleak bere kabuz ikasten eta txandakako aldian zehar enpresan prestakuntza jasotzen eman beharreko denbora, ECTS kreditutan zehaztuta. Gainera, aurreikusitako irakasleak eta irakasgai bakoitzaren ordutegi-banaketa ere zehaztuko dira.

Epe horretan bertan, ikasleen esku jarri beharko du, webgunean argitaratuz, irakasgai bakoitzeko irakaskuntza-gida, ikastegian ematen diren titulazioetako irakasgai bakoitzeko sailak onartua, baita ebaluazio-probetako eta irakaskuntzako beste jarduera batzuen egutegia ere.

2. Irakasgai bakoitzak bere irakaskuntza-gida izango du. Gutxienez, honako hauek hartuko ditu barne: prestakuntzaren helburuak, programa, programatutako jarduerak, ebaluazio-sistema, ebaluazio-irizpide eta -adierazle espezifikoak, eta, dagokionean, proba bakoitzaren haztapena. Lotura koherentea egongo da prestakuntza-helburuen, programatutako jardueren eta ebaluazio-irizpideen artean. Gainera, irakaskuntza-gidak bat egin behar du ikasketa-planean onartutakoarekin. Taldeen ardura duten irakasleek irakasgaiaren oinarrizko programa adostu behar dute.

Zuzenean ikastegi baten menpe dauden gai edo irakasgaien irakaskuntza gidak ikastegi horre-tako batzarrak onartu beharko ditu.

Irakasgaiaren ebaluazioa ezin izango da egin irakasleek behar beste landu ez dituzten gaien inguruan, nahiz eta gaiok irakasgaiaren hasierako programan agertu.

3. Ikastegiak argitara emango du aurrez aurreko jardueraren ordutegia (eskola magistralak, mintegiak, ikasgelako praktikak edo aurrez aurreko beste jarduera-motaren bat), eskola-astetan antolatuta. Edonola ere, beharrezkoa izango da irakaskuntza magistralaren ordutegia ezartzea. Beste irakaskuntza-modalitate batzuen programazio zehatza aurretik jakiterik ez badago, aurreikuspen orokorrak adieraziko dira, behintzat.

Bestalde, orduak honela banatuko dira: 55 minutu eskolarako eta 5 minutu atsedenerako. Eskolak erdietan hasiko dira eta hogeitabostetan amaituko dira; ordubete baino gehiago irauten duten eskolak izan ezik. Halakoetan, atsedenaldiak irakasle bakoitzarekin adostuko dira.

4. Ikastegiko zuzendaritzak, eskura dituen baliabideen heinean, talde-bidaiak eta ikasketa-bidaiak sustatuko ditu. Bidaiok aldez aurretik denbora nahikoaz programatuko dira, behar bezala antolatzeko eta beharrezko baimen akademikoak eta balizko laguntzak eskuratzeko.

5. Argitaratutako programazioan, programatutako jarduera bakoitzeko irakasle arduradunen izenak jasoko dira.

6. Euskaraz eta gaztelaniaz ematen diren irakasgaien kasuan, matrikulatutako ikasleek talde jakin batean sartzeko eskaria egin ahal izango dute kurtso hasieran, ikastegi bakoitzak horretarako zehaztutako epean. Enpresako prestakuntzarekin lotutako irakasgaiei dagokienez, ikasleak euskarazko edo gaztelaniazko taldearekin bat egin dezake, enpresan erabilitako lan-hizkuntzaren arabera, gainerako irakasgaietan zer taldetan dagoen kontuan hartu gabe.

***16. artikulua.*** *Irakaskuntza antolatzeko plana*

1. Ikastegiko zuzendaritzak ikasturterako irakaskuntza antolatzeko planaren eta tutoretza-ordutegien berri emango die irakasleei. Tutoretza-ordutegiei buruzko informazioa ikastegiaren webgunean ere argitaratuko da.

2. Ikasleek eskubidea dute ikasturte akademikoan zehar banakako laguntza eta orientazioa jasotzeko ikasketa-prozesuan barrena, tutoretzen bidez.

Ezarritako tutoretza-erregimenari ikasturte osoan eutsi beharko zaio, ikasgaiaren azken deialdia egin arte. Ikasturtearen hasieran, irakasgai bakoitzeko irakasleak tutoretza-ordutegia (ordubete astero, irakasgai bakoitzeko) jakinaraziko die ikasleei, eta, aldaketarik izanez gero, irakasleak berak jarriko ditu ikasleak jakinaren gainean. Hitzordua posta elektronikoz adostuko da irakasgaiko irakaslearekin.

***17. artikulua.*** *Koordinazio-erregimena*

1. Promozio bakoitzeko arduradun akademikoak eta enpresako jarraipen-arduradunak ikasturteko gaitasunak (akademikoak zein enpresakoak) garatzen direla zainduko dute, baita prestakuntza-prozesuak hobekuntza jarraitua duela ere. Horretarako, ikasturtean zehar jasotako ebidentziak eta datuak hartuko dituzte aintzat.

Arduradun pedagogikoak, Eskolako batzordeak izendatutako arloko arduradunekin batera, irakaskuntza-taldeak koordinatzen direla eta ikasleen lanaren banaketa orekatua dela zainduko du, eta prestakuntza-prozesua etengabe hobetzeko proposamenak egingo ditu, ikastaroan edo moduluan zehar jasotako ebidentzia eta datuetan oinarrituta.

2. Gradu batean irakasgai bera irakasle batek baino gehiagok ematen badute, ezinbestekoa izango da irakasle horiek guztiak elkarrekin koordinatzea. Horretarako, irakasgai-koordinatzaile bat egongo da.

Ikasturtero, zuzendaritza-taldeak aukeratuko du irakasgai-koordinatzailea, irakasgai hori ematen duten irakasleen artean.

Irakasle batek baino gehiagok emandako irakasgaiko irakaskuntza-jarduerak behar bezala koordinatzen direla bermatzeko, funtzio hauek gauzatu beharko dira:

a) Irakasgai-koordinatzaileak irakasgai horretako irakaskuntza-gidaren proposamena berrikusi eta eguneratuko du, irakasgai horretako gainerako irakasleen laguntzarekin, zuzendaritza-taldeak onar dezan.

b) Irakasgai bat ematen duten irakasleek irakaskuntza-gidan ezarritakoaren arabera egokitu beharko dute irakaskuntza-programazioa; irakasgai-koordinatzaileak talde guztiek egiten dutela zainduko du, edozein dela ere hizkuntza eta irakasle kopurua.

c) Irakasgai bera ematen duten irakasleak bi aldiz bilduko dira gutxienez ikasturte bakoitzean euren irakaskuntza-jarduerak koordinatzeko; bilera bat irakasgaia ematen hasi aurretik egingo dute, eta bestea, ikasturtea amaitutakoan, lortutako emaitzak esku artean dituztela. Irakasgai-koordinatzaileak deituko ditu irakasleak bilera horietara, eta koordinazioa bermatzeko beharrezkotzat hartzen dituen guztietara.

d) Ikasturtea amaitzean, irakasgai-koordinatzaileak irakaskuntza-programazioari buruzko informazioa bilduko du dokumentu batean. Gainera, gorabehera aipagarriak jaso eta, dagokionean, hobekuntza-proposamenak egingo ditu.

***18. artikulua.*** *Ebaluazio-proben egutegiak*

1. Ikasturte bakoitzerako, eta matrikula-epea ireki aurretik, Eskolako batzordeak deialdi ofizialetako azterketen egutegia onartu eta argitaratuko du.

2. Ikastegiko zuzendaritzak hilabeteko aurrerapenarekin jakinaraziko du zer ordutan eta zer ikasgelatan egingo diren deialdi ofizialei dagozkien ebaluazio-probak.

3. Ebaluazio proben datak arrazoi justifikaturen batengatik aldatzeko proposamenak sailak egingo ditu, eta zuzendaritzak onartuko ditu, ikasleen ordezkariaren iritzia entzun ondoren. Aldaketak berehala argitaratuko dira ikastegiaren webgunean, betiere, aldatutako ebaluazio-proba egin baino 15 egun lehenago, gutxienez.

4. Irakasgai baten baino gehiagoren ebaluazio-probak egun berean programatuta badaude, bat baino gehiago egin behar dituzten ikasleei kalte ez egiteko, ikasleek data aldatzeko eska diezaiekete irakasleei, aldatu beharreko proba egin baino 15 egun lehenago, gutxienez. Horretarako, hau hartuko da kontuan:
a) Derrigorrezko bi irakasgairen azterketak egun berean egin behar izanez gero, bien artean maila goragokoa den irakasgaiko irakasleek jarriko dute beste data bat.

b) Derrigorrezko irakasgai baten eta hautazko irakasgai baten ebaluazio-probak egun berean izanez gero, hautazko irakasgaiaren eguna aldatu beharko da.

5. Maila bereko bi irakasgairen ebaluazio-proben hasierako orduen artean 24 ordu baino gutxiago badaude, bi ebaluazio-proba horiek batera gertatzen direla ulertuko da. Maila desberdinetako irakasgaien kasuan, proba bi batera suertatzen direla ulertuko da proba biak lau orduren barruan hasten direnean, edo bata bukatzen denetik bestea hasten denera arte bi ordu baino gutxiago igarotzen direnean.

6. Ikasleak ezin badira programatutako ebaluazio-probetara aurkeztu, unibertsitateko kide anitzeko ordezkaritza-organoen bileretan egon behar dutelako, edo unibertsitateko araudian jasotako beste arrazoi bategatik, beste egun eta ordu batean egingo dute kasuan kasuko proba.

Unibertsitatea arduratuko da azterketa garaian ez aurreko egunetan bilerarik ez jartzeaz.

7. Ikasleek, eskatuz gero, ebaluazio-probara joan izanaren ziurtagiria jasoko dute.

8. Azterketa-deialdi bakoitzaren hasieran, departamentuko zuzendariak irakasle guztiei gogoraraziko die garrantzitsua dela arautegian ezarritako epeak betetzea, kalifikazio-, berrikuspen- eta erreklamazio-prozedurari dagokionez.

9. Gobernu organoen erabakiz unibertsitatea itxita egongo den aldiak baliogabeak izango dira epeak zenbatzeko eta azterketak egiteko.

# IV. KAPITULUA

## Sari bereziak eta bikaintasunez graduatua

***19. artikulua.*** *Graduko ikasketa ofizialetako sari bereziak.*

1.– UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak (Graduko Batzordeak, eskumenak eskuordetuta), gehienez sari berezi bi eman ahal izango ditu ikasturte bakoitzean eta unibertsitateko ikastegietan ematen den titulazio bakoitzeko, espediente akademikorik onena daukaten ikasleentzat.

2.– Karrera amaierako sari berezia jasotzeko hautagai izan daitezke sariak ematen diren ikas-turtearen aurrekoan titulu ofiziala lortzeko ikasketak amaitu dituzten graduko ikasleak.

3.– Sari berezirako proposamena ofizioz egingo du ikastegi bakoitzeko dekanoak edo zuzenda-riak, ikasturte bakoitzerako legez ezarritako azken deialdia amaitu eta gero.

4.– Ikastegi bakoitzeko batzarrak zehaztuko du sari berezia proposatzeko egoki deritzon prozedura. Prozedura espezifikorik ezean, ikastegi bakoitzak batzorde bat izendatuko du, ikastegi horretan ematen diren titulazioei lotutako sailetako irakasleek osatua, gutxienez. Batzordeak espediente akademikoa egiaztatu eta baloratuko du, hurrengo artikuluan zehaz-ten den moduan.

5.– Irizpide hauek erabiliko dira espediente onena zein den erabakitzeko:

a) Titulazioko irakasgaietako kalifikazioak baino ez dira kontuan hartuko. Beraz, ez dira aintzat hartuko ikasleak egindako bestelako ikasketa edo lanak. Ikastegiko Batzarrak egokitzat jotzen dituen irizpideak ezarri ahal izango ditu puntu hau garatzeko.

b) Ikastegiak erabaki ahal izango du noiz ematen duen bukatutzat aurreko ikasturtea, baina bakarrik artikulu honetako 2. atalean esaten denari dagokionez.

c) Espediente akademikoa baloratzeko, aplikatuko dira ekainaren 10eko 1267/94 Errege Dekre-tuko (ekainaren 11ko BOE) I. eranskineko irizpide eta baliokidetzak, irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretua (irailaren 18ko BOE) edo une horretan indarrean dauden arauak.

d) Sari berezirako proposamena hutsik geratuko da titulazio batean baldin eta Ikastegiko Batzarrak ezarritako irizpideei jarraikiz, horretarako merezimendurik daukan ikaslerik ez badago. Horrelakoetan, eman gabe geratzen diren sariak ezin izango dira eman ikastegiko beste titulazio batzuetan.

6.– Saridunari ziurtagiria emango zaio, eta bere espediente akademikoan eta Tituluaren Gehi-garri Europarrean (TGE) geratuko da jasota.

## Bikaintasunez graduatua

***20. artikulua.*** *«Bikaintasunez graduatua» aitorpena lortzea.*

«Bikaintasunez graduatua» aitorpena lortzeko baldintzak unibertsitateko Gobernu Kontseiluak onartu zituen 2017ko uztailaren 13an eta EHAAn argitaratu ziren 2017ko azaroaren 20an. Baldintza horietan esaten da, besteak beste, UPV/EHUk bikaintasunez graduatuaren aitorpena egingo diela graduko kreditu guztiak kasuan kasuko lehenengo ohiko deialdian gainditu dituzten ikasleei. Gehienez ere aitorpen bat egingo da gradu bakoitzeko azkenengo mailan matrikulatutako hamalau ikasleko multzo bakoitzeko edo hamalautik beherako ikasle multzo bakoitzeko.

Azaroaren 2an aplikatuko dira aitorpen hori egiteko baldintzak, ikasturtea urriaren 31n behin betiko itxi eta gero. Une horretatik aurrera GAUR aplikazio informatikoan kontsultatu ahal izango da informazioa. Data horretatik aurrera ez da aldaketarik egingo. Aitorpen hori lortzeko, ikasleek ezin dute espedientean «suspentso» edo «aurkezteke» kalifikaziorik eduki, ez eta «uko eginda» edo «aitortua» kalifikaziorik ere, eta gradua amaituta eduki behar dute haren iraupenari dagokion ikasturte kopuruan (lau, bost edo sei urte, graduaren arabera). Gradua ikastegi berean eta atal berean egina eta gainditua izan beharko dute.

Aitorpena egin zaien ikasleen zerrenda bat jarriko da ikastegien eskura, ikastegiak interesdu-nekin harremanetan jar daitezen eta aukera eskain diezaieten, dagoeneko ikaslearen ziurtagiri akademikoa/edo TGE eskuratu badute, horren ordez beste bat eskuratzeko, aitorpen hori txerta-tuta daukana.

# V. KAPITULUA

## Salbuespenezko deialdia (graziakoa)

***21. artikulua.*** Salbuespenezko deialdien eskaerak irizpide hauen arabera ebatziko dira:

a) Graduko ikasketetan, salbuespenezko bi deialdi emango dira gehienez, ikasketa-plan bakoitzeko eta ikasle bakoitzari.

b) Graduko ikasketetan, salbuespenezko deialdi bat eman ahal izango da 1. eta 2. mailetako irakasgaietarako, baldin eta, gehienez ere, maila horietako 30 kreditu badituzte gainditzeke. 3. eta 4. mailetako irakasgaietan salbuespenezko deialdi bat eman dadin, ikasleak 60 kreditu izan beharko ditu gainditzeke, gehienez, gradua amaitzeko. Kasu berezietan, salbuespenezko deialdi biak graduko ikasketen erdi berean pilatu ahal izango dira. Horrelakoak Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko errektoreordetzak aztertuko ditu.

c) Graduko eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko errektoreordeak, UPV/EHUko errektoreak eskumenak eskuordetuta, salbuespenezko deialdi bat eman ahal izango dio ikasleari, haren espedientea eta goiko ataletan sartzen ez diren bestelako xehetasunak kontuan hartuta, betiere, behar bezala justifikatu egonez gero.

d) Ikasle bakoitzak aukeratu ahal izango du salbuespenezko deialdia zein deialditan erabiliko duen. Matrikula egitean, ikastegiko idazkaritzan jakinarazi beharko du.

# VI. KAPITULUA

## Espediente akademikoko batez besteko nota graduko ikasketetan

***21. artikulua.*** *Espediente akademikoko batez besteko nota graduko ikasketetan.*

Ikaslearen espediente akademikoko batez besteko nota lortzeko honako formula hau aplikatuko da: ikasleak irakasgai bakoitzean lortutako kredituak bere kalifikazioaren balioaz biderkatu, emaitza horiek guztiak batu, eta kopuru hori zatituko da ikasleak guztira lortutako kreditu kopuruaz. Plan zahar edo berritu gabeetan, espedienteko batez bestekoa lortzeko kalifikazio guztiak batu, eta emaitza zatituko da irakasgai kopuruaz.

Irakasgai egokitu, baliozkotu eta aitortuen puntuazioa izango da espedientean sartuta dagoen kalifikazioari dagokiona. Baliokidetza batean irakasgai bat baino gehiago aitortu edo baliozkotu direnean, haren nota izango da haien arteko batezbestekoa. Kalifikaziorik ez badago, 5,0na puntu emango zaie, batezbesteko haztatua kalkulatzeko.

Lan esperientziaren bidez, unibertsitateko ikasketa ez-ofizialen bidez edo ikasketa planean ez dauden prestakuntza jardueren bidez aitortutako kredituei ez zaie zenbakizko kalifikaziorik emango, eta kreditu horiek ez dira aintzat hartuko espediente akademikoko batezbestekoa ateratzeko.

# GRADUKO TITULAZIO OFIZIALETAKO IKASLEEN EBALUAZIO ARAUTEGIA

## I. KAPITULUA

***1. artikulua.*** *Helburuak*

Arautegi honen helburua da ikasketa planeko irakasgaietan erabiltzen diren ebaluazio prozesu eta prozedurak arautzea eta ebaluazio jarraituko sistemak ezar daitezela sustatzea, azken proben pisua murrizteko, edo, are gehiago, desagerrarazteko, eta horien ordez irakaskuntza aldian zehar banatuta egongo diren ebaluazio jarduerak ezartzen joateko.

***2. artikulua.*** *Aplikazio-eremua*

Arautegi hau Euskal Herriko Unibertsitateko Graduko titulazio ofizialetako ikasleen ezagutzak ebaluatzeko eta kalifikatzeko sistema guztietan (teorikoa, praktikoa, idatzizkoa, ahozkoa, grafikoa edo informatikoa) aplikatzen da.

***3. artikulua.*** *Ebaluazioaren printzipio orokorrak*

1. Ikasleek berdintasun eta justizia-bermez ebaluatuak izateko eskubidea dute, jasotako irakaskuntza mailaren arabera.

2. Ebaluazio-probak dibertsitate funtzionala duten ikasleen premietara egokitu beharko dira, eta sailek eta ikastegiak metodologian, egutegian eta eremuetan egin beharreko egokitzapenak egin beharko ditu.

3. Ikastegiko zuzendaritza arduratuko da ikastegian ematen diren titulu eta espezialitateen ikasketak pareko baldintzetan ebaluatu daitezen.

***4. artikulua.*** *Ebaluazioa eta irakaskuntza-gidak*

1. Ikaskuntzaren ebaluazioak, ikasketa planetako irakasgai guztietan, honako helburu hauek ditu:

a) Irakasgaian eskuratutako ikaskuntzaren emaitzak neurtzea irakaskuntza-gidetan zehaztutako ebaluazio-irizpide eta adierazle zehatzen bidez.

b) Ikasleei ezagutaraztea euren ikaskuntzaren emaitzek zein bilakaera izan duten irakasgaian, bertan ezarritako emaitzekin bat.

c) Irakasgai bakoitzean irakaslearen jarduera bideratzea, ikasleak ikaskuntzaren emaitzak eskuratu ahal izateko.

2. Ikaskuntzaren ebaluazioa, irakasgai bakoitzean, kasuan kasuko gradua egiaztatzeko memorian ezarritakoaren araberakoa izan beharko da.

3. Sailak bere kargupeko irakasgaietako irakaskuntza-gidak onartuko ditu. Gida bakarra egongo da irakasgai bakoitzeko eta bertan jasoko dira espero izatekoak diren ikaskuntzaren emaitzak, eta ebaluazio sistema eta irizpideak, kasuan kasuko haztapena barne.

4. Ikasturteko matrikula egiteko epea ireki baino lehen, ikastegi bakoitzak bere webgunean argitaratuko ditu ikastegian ematen diren titulazioetako irakasgai guztien irakaskuntza-gidak.

***5. artikulua.*** *Hezkuntzarako ebaluazioa*

Ebaluazioa hezkuntzara begirakoa izango da eta ikasleari informazio eta orientazio egokia eskaini beharko dio gaitasunen jabetze mailaren inguruan eta ikaskuntza prozesua hobetzeko iradokitzen diren hobekuntzak adieraziko ditu. Ebaluazio-proba egin ondoren, irakasleek ebaluazio-probako galderen erantzun zuzenak jakinaraziko dituzte, ikasleek ahalik eta etekin handiena atera dezaten egindako probetatik.

***6 artikulua.*** *Ebaluazio-proben egutegiak*

1. Ikasturte bakoitzerako, eta matrikula-epea ireki aurretik, Eskolako batzordeak deialdi ofizialetako azterketen egutegia onartu eta argitaratuko du.

2. Ikastegiko zuzendaritzak hilabeteko aurrerapenarekin jakinaraziko du zer ordutan eta zer ikasgelatan egingo diren deialdi ofizialei dagozkien ebaluazio-probak.

3. Azterketen datak arrazoi justifikaturen batengatik aldatzeko proposamenak sailak egingo ditu, eta zuzendaritzak onartuko ditu, ikasleen ordezkariaren iritzia entzun ondoren. Aldaketak berehala argitaratuko dira ikastegiaren webgunean eta iragarki oholean, betiere, aldatutako ebaluazio-proba egin baino 15 egun lehenago, gutxienez.

4. Irakasgai baten baino gehiagoren ebaluazio-probak egun berean programatuta badaude, bat baino gehiago egin behar dituzten ikasleei kalte ez egiteko, ikasleek data aldatzeko eska diezaiekete irakasleei, aldatu beharreko proba egin baino 15 egun lehenago, gutxienez. Horretarako, hau hartuko da kontuan:

a) Derrigorrezko bi irakasgairen azterketak egun berean egin behar izanez gero, bien artean maila goragokoa den irakasgaiko irakasleek jarriko dute beste data bat.

b) Derrigorrezko irakasgai baten eta hautazko irakasgai baten ebaluazio-probak egun berean izanez gero, hautazko irakasgaiaren eguna aldatu beharko da.

5. Maila bereko bi irakasgairen ebaluazio-proben hasierako orduen artean 24 ordu baino gutxiago badaude, bi ebaluazio-proba horiek batera gertatzen direla ulertuko da. Maila desberdinetako irakasgaien kasuan, proba bi batera suertatzen direla ulertuko da proba biak lau orduren barruan hasten direnean, edo bata bukatzen denetik bestea hasten denera arte bi ordu baino gutxiago igarotzen direnean.

***7. artikulua.*** *Epeak zenbatzea*

Abuztua baliorik gabea izango da epeak zenbatzeko eta azterketak egiteko.

# II. KAPITULUA

***8. artikulua.*** *Ebaluazio sistemak*

1. Irakasgai bakoitzaren ebaluaziorako erabiliko diren irizpide eta prozedurak, haztapenak barne, berdinak izango dira talde guztietarako. Irakasgaiaren ardura duen sailak bermatu egin beharko du hori horrela dela.

2. Egongo diren ebaluazio sistemak izango dira etengabeko ebaluazioa eta azken ebaluazioa:

a) Etengabeko ebaluazioa da UPV/EHUn nagusiki erabili beharreko ebaluazio sistema. Sistema horretan ebaluazio-proba eta jarduera multzo bat ezartzen da, ikasle bakoitzak prestakuntza aldian aurrera nola egiten duen baloratzeko. Erabilitako sistema eta tresnek bermatu egin behar dute gaitasun guztien garapena eta irakasgaiaren irakaskuntza-gidan agertu behar dute. Aukera egongo da ebaluazioa

prestakuntza aldian zehar egindako probekin soilik egiteko, edo, proba horiek egiteaz gain, kasuan kasuko azterketa deialdirako ezarritako data ofizialean egingo den proba osagarri bat ere egiteko.

Irakaskuntza-gidan zehaztu egin beharko da proba edo jarduera bakoitzak irakasgaiaren kalifikazioan duen haztapena eta, horrez gain, proba edo jarduera derrigorrezkoa den ere adierazi beharko da, hau da, egin beharrekoa den eta/edo gutxieneko nota bat lortu behar den irakasgaia bera gainditzeko.

b) Azken ebaluazioak aukera ematen du proba baten bitartez ebaluatzeko ikaskuntzaren emaitzak. Proba hori irakasgaiaren ebaluazio orokorra egiteko azterketa edo jarduera batek edo gehiagok osatuko dute eta azterketa aldi ofizialean egingo da.

Salbuespen moduan, ebaluazio sistema horrek ikasturtean zehar egindako jarduerak ere barne hartu ahal izango ditu, azterketa aldi ofizialean ezarritako proban ebaluatu ezin diren ikaskuntzaren emaitzak baloratzeko. Irakasgaiaren irakaskuntza-gidan argi eta garbi adierazi beharko da jarduera horiek zeintzuk diren eta horien haztapena zein den, eta jarduerok sailaren oniritzia izan beharko dute.

Halako kasuetan, sailak bermatu egin beharko du azterketa aldi ofizialean egindako proban programaren zatirik handiena ebaluatuko dela eta proba horretan ikasleek irakasgaiaren guztizko kalifikazioaren ehunekorik handiena eskuratzeko aukera izango dutela.

3. Ebaluazio jarraituko sistemaren bidez ebaluatzen diren irakasgaien kasuan, ikasleek ebaluazio jarraitua ala azken ebaluazioa aukeratu ahal izango dute. Ikasleek hilabeteko epea edo irakasleak adierazitakoa izango dute, irakasgaia hasten den egunetik hasita, euren aukera formalizatzeko. Epe horretan modalitatea aukeratzeko dokumentua bete ezean, azken ebaluazioaren alde egin duela hartuko da aintzat. Ikasturtean zehar, ezin izango da aukeratutako ebaluazio-sistema aldatu.

4. Nahitaezko curriculumeko praktikak dauzkaten graduetan, ikasleak urtean deialdi bakarra izango du practicumeko irakasgaia gainditzeko, baldin eta ikasketa horiek ematen dituzten ikastegiek beren deialdi-sistema ezartzen ez badute. Bestelako deialdiok, betiere, helburu akademikoak betetzen direla bermatu beharko dute.

***9. artikulua.*** *Ebaluazioa ezohiko deialdian*

1. Irakasgaia ohiko deialdian gainditzen ez duten ikasleek, hautatutako ebaluazio sistema gorabehera, eskubidea izango dute ezohiko deialdiko azken ebaluazioko proba osatzen duten azterketa eta jardueretara aurkezteko.

2. Ezohiko deialdietan irakasgaiak ebaluatzeko sistema bakarra azken ebaluazioa izango da.

3. Ezohiko deialdiko azken ebaluazioko probak definituta dauden ikaskuntzaren emaitzak ebaluatzeko eta neurtzeko behar beste azterketa eta ebaluazio jarduera izango ditu, emaitzok ohiko deialdiaren pareko baldintzetan ebaluatu ahal izateko. Ikasleek ikasturtean zehar eskuratutako emaitza positiboak gorde ahal izango dira. Aldiz, ikasturtean zehar egindako etengabeko ebaluazioaren emaitzak negatiboak badira, emaitzok ezin izango dira ezohiko deialdirako mantendu eta deialdi horretan ikasleek kalifikazioaren % 100 eskuratu ahal izango dute.

***10. artikulua.*** *Ikasketa amaierako deialdia*

Ikastegi bakoitzak zehaztuko ditu ikasketa amaierako azterketei buruzko arauak, baina, gutxien dela, ondokoa ezarriko da ikasketa guztietarako:

1. Lehenengo matrikulakoak ez diren irakasgaietan baino ezingo da ikasketa amaierako deialdirako eskaria egin. Salbuespen bakarrak izango dira Alternantziaren hirugarren fasea (derrigorrezko praktikak) eta Gradu Amaierako Lana.

2. Ikasketa amaierako deialdirako eskaria egin ahal izango dute ikasketak amaitzeko gehienez ere 30 kreditu falta dutenek, ondorio hauetarako kontuan izan gabe Gradu Amaierako Lanari dagozkion kredituak.

3. Azterketak matrikularen arabera irakasgai, talde eta deialdiaren ardura daukaten irakasleek egingo dizkiete eskatzaileei.

4. Ikasketa amaierako azterketak ebaluatzeko erabiliko den sistema azken ebaluazioa izango da

***11. artikulua.*** *Ebaluazio-proben planifikazioa eta garapena*

1. Ebaluazio-proben programazioa ezin izango da aldatu, betiere, proba behar bezala egitea galaraziko lukeen ustekabeko ezintasunen bat gertatzen ez bada. Salbuespenezko egoera hauen aurrean, titulazioetako arduradunek kontsultak egingo dituzte aldaketaren eragina jasango luketen irakasle eta ikasleekin, zuzenean edo ordezkarien bitartez eta bost eguneko gehienezko epean, programazio berri bat proposatzeko.

2. Ebaluazio-proba egiteko ordu ofiziala iritsita, lehendabiziko hamabost minutuko tartean sartzen utziko zaie probarako deituta dauden ikasleei, baldin eta berandu iristeko arrazoia ustekabeko arrazoi larria eta justifikatua izan bada (garraio-greba, baldintza meteorologikoa edo bestelakoa). Ezinezkoa bada alegatutako arrazoia momentuan bertan egiaztatzea, gerora eskatu ahal izango zaie ikasleoi egiaztatzea. Halaber, hamabost minutuko tarte horretan, ikasleek ezin izango dute azterketa gelatik irten.

Ebaluazio-probak egin bitartean, irakasleak edozein unetan eskatu ahal izango dio identifikazioa bertaratutako ikasleari, eta ikasleak erakutsi egin beharko du ikaslearen txartela, nortasun-agiri nazionala, pasaportea edo ikasgelako zaintzailearen edo probako begiralearen iritziz akreditaziorako baliagarri izan daitekeen beste edozein agiri.

3. Ebaluazio-proba batean kopiatu egin dela egiaztatuz gero, tartean sartuta dauden ikasle guztiei «gutxiegi» kalifikazioa (0,0) jarriko zaie deialdi horretan, bakoitzaren erantzukizuna gorabehera. Pertsona bat kopiatzen ari dela proban bertan egiaztatuz gero, momentuan bertan proba egiteari uzteko agindu ahal izango zaio.

4. Txandakatze-faseko irakasgaian eta enpresarekin lotutakoetan, ebaluazio akademikoari dagokion ebaluazio-arautegia aplikatuko dira, irakaskuntza-gidan adierazitakoaren arabera.

***12. artikulua.*** *Deialdiari uko egitea*

1. Deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute.

2. Etengabeko ebaluazioaren kasuan, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren % 40 baino handiagoa, nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa “ez aurkeztua” izan dadin. Aldiz, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren % 40 edo hori baino txikiagoa, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.

3. Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

***13. artikulua.*** *Kalifikazio-sistema bateratua edo epaimahai bidezkoa*

1. Lehenengo deialditik laugarren deialdira bitartean, irakasgai bereko taldeek irakasle desberdinak dauzkatenean, irakasleok kalifikazio-sistema bateratua erabili ahal izango dute. Kasu horretan, irakasle bakoitzak bere taldearen edo taldeen aktak sinatuko ditu.

2. Aurreko idatz-zatian zehaztutakoa gorabehera, eta kasu beretarako, ikastegiko arautegian epaimahai bidezko ebaluazio bateratua egiteko aukera jaso ahal izango da 1. , 2., 3. eta 4. deialdietarako.

Epaimahaikideak irakasle aditu bat, antzeko irakasgai bateko irakasle bat eta ikastegiko zuzendaria edo hark aukeratutako pertsona bat izango dira, edo irakasgaiko irakasle guztiak. Epaimahaiak baldintza hauek bete beharko ditu:

- Epaimahaiak irakasgai bereko taldeetako irakasleek osatuko dituzte. Taldeen ardura duten irakasleak epaimahaia osatzeko behar diren kideak baino gutxiago direnean, epaimahaia osatuko da jakintza-arlo berdineko irakaslearekin.
- Irakasgaiko talde guztietako irakasleak egon beharko dira epaimahaian.
- Bai kalifikazioak bai aktak, talde bakoitzeko irakasleak eta epaimahaiburuak sinatuko dituzte.

3. Eskolako batzordeak izendatuko ditu irakasgai bakoitzeko bosgarren, seigarren eta salbuespenezko deialdiak ebaluatuko dituzten epaimahaiak, eta kontuan izanda, hala badagokio, irakasgaia zein hizkuntzatan eman den. Irakasle aditu bat, antzeko irakasgai bateko irakasle bat eta ikastegiko zuzendaria edo hark aukeratutako pertsona bat izango dira, eta, probaz gain, kontuan hartuko dituzte ikaslearen historiala eta gainerako gorabehera akademiko guztiak. Epaimahaia osatuko duten pertsonen zerrenda ikasturte bakoitzeko lehenengo hiruhilekoan jarriko da jendaurrean.

4. Lehenengo deialditik laugarrenera bitartean dauden ikasleek epaimahai aurreko ebaluazioa eskatu ahal izango dute. Horrelakoetarako osatuko den epaimahaia bosgarren eta seigarren deialdietarako osatutako bera izango da edo, bestela, lehenengo deialditik laugarrenera bitarteko deialdietarako osatutakoa, ikastegiko arautegian halakorik jasota badago. Epaimahai hori berori arituko da aplikatu beharreko arauetan abstentziorako eta kideak arbuiatzeko jaso diren kasuetan baina kasu horietakoren batean dauden irakasleek ezin izango dute epaimahaiko kide izan.

5. Epaimahaiak hartutako erabakiaren kontra erreklamazioak jarri ahal izango dira, 22.b) artikuluan zehaztutako prozedurari jarraituz. Ebaluazio-proba epaimahaiak berrikusiko du halakoetan.

***14. artikulua.*** *Ahozko ebaluazio-probak*

Ahozko ebaluazio-probak, horrelakorik egiten denean, publikoak izango dira, eta ikasleek eskubidea izango dute ebaluazio-proba graba dadin eskatzeko.

***15. artikulua.*** *Praktiken memoriak eta lanak*

1. Irakasleek ezarriko dute praktiken memoriak eta lanak aurkezteko data, lanok agintzeko momentuan. Edozelan ere, memoria eta lanok ebaluatzeko ezarritako datak behar besteko denboraz jarri beharko dira, ikasleak ebaluazio-probetara berme guztiekin aurkezteko duen eskubidea babesteko.

2. Irakasleak gordeko ditu euskarri material bakarra duten praktiken memoriak eta lanak, hurrengo ikasturtea amaitu arte. Epe hori igarota, ebaluatutako lanak eskolan gordeko dira, euskarri informatikoan, kalitate-sisteman ezarritakoaren arabera. Lanen eta proiektuen kasuan, ikasleek euskarri informatikoan emango ditu behin betiko dokumentuak, ikastegiak fitxategian gorde ditzan.

3. Lanok berriz argitaratu edo erreproduzitzeko, osorik edo zati batean, edo beste edozertarako erabiltzeko, ezinbestekoa izango da egileek berariazko baimena ematea.

4. Ikastegi bakoitzak gradu amaierako lanak egiteko indarrean daukan arautegia ikastegiaren webgunean argitaratu beharko da.

***16. artikulua.*** *Ebaluazio-probak gordetzea*

Ebaluazio-probak eta ahozko proben grabazioak (halakorik egonez gero), hurrengo ikasturtea amaitu arte gorde beharko dira gutxienez; hala ere, errekurtsorik jarrita badago, errekurtsoa ebatzi arte gorde beharko dira. Ikastegiak ezarriko ditu proba horiek gordetzeari buruzko arauak.

***17. artikulua.*** *Behin-behineko kalifikazioak argitaratzea*

Deialdi ofizialeko ebaluazioaren behin-behineko kalifikazioak 12 egun naturaleko epean argitaratuko dituzte irakasleek, ebaluazio-proba egiteko data ofizialetik kontatzen hasita eta unibertsitateak horretarako prestatuta dituen baliabide informatikoak erabilita. Behin-behineko kalifikazioarekin batera argi agertu beharko da argitaratze data, kalifikazioak berrikusteko eskarietarako epea ezartzeari begira.

Kalifikazioak baliabide informatikoak erabiliz argitaratzeaz gain, moodlen edo iragarki oholetan ere argitaratu ahal izango dira. Kasu horietan ikasleak identifikatzeko NAN zenbakia baino ezingo da erabili.

***18. artikulua.*** *Kalifikazioak berrikustea*

1. Behin-behineko kalifikazioa argitaratzean, kalifikazioa irakasgaiaren ardura duen irakaslearekin berrikusteko eguna, tokia eta ordua zehaztu beharko dira; berrikuspenerako epea, bestalde, gehienez hamar egun naturalekoa izango da, kalifikazioa argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

2. Berrikuspena pertsonala eta banakakoa izango da eta bertan, ikasle bakoitzak eskura izango du dagokion ebaluazio-proba; horrez gain, lortutako kalifikazioari buruz eman beharreko azalpen guztiak emango zaizkio ikasleari ahoz eta, behar izanez gero, dibertsitate funtzionala duten pertsonen premia espezifikoetara moldatuta.

3. Ebaluazioa epaimahai batek egin badu, ikasle ebaluatuak eskubidea izango du ariketak epaimahaiaren aurrean berrikusteko.

4. Ikaslea ezin bada berrikuspenera joan behar bezala justifikatutako arrazoi pertsonal larriengatik edo arrazoi akademikoengatik, berrikuspena beste egun batean egiteko eskubidea izango du. Egun hori irakaslearekin adostu beharko du, edo, hala badagokio, epaimahaiarekin, lehen aipatutako epearen barruan.

***19. artikulua.*** *Irakasgaiaren akta ofiziala*

1. Berrikuspenerako epea amaitu eta, gehienez ere, hiru egun naturaleko epearen barruan irakasgaiaren ardura duen irakasleak irakasgaian matrikulatutako ikasleek lortutako behin betiko kalifikazioak jasotzen dituen akta ofiziala bete eta sinatuko du.

2. Akta sinatu behar duen irakasleak ezin badu akta sinatu dena delako arrazoiengatik, irakasgaiaren ardura duen sailak ordezko irakasle bat izendatuko du akta sinatzeko, artikulu honetan ezarritakoa betetzeari begira.

3. Akta hauek ikastegiko zuzendaritzara bidaliko ditu irakasleak, idazkari akademikoak irakaslearen sinadura egiaztatu eta argitara eman daitezen, berehala, ikasle bakoitzaren esku dagoen UPV/EHUko web orrian. Aktak baliabide informatikoak erabiliz argitaratzeaz gain, iragarki oholetan ere argitaratu ahal izango dira baina kasu horretan, ikasleak identifikatzeko NAN zenbakia baino ezingo da erabili.

4. Aktetan akatsik antzemanez gero, zuzenketa egiteko diligentzia egin eta aktari erantsiko zaio.

5. Akta ofizialetan sinadura elektronikoa erabiltzea bultzatuko du ikastegiak.

***20. artikulua.*** *Irakasleek kalifikazioak ez bidaltzea eta aktak ez sinatzea*

Ikastegiek deialdi ofizialetako ebaluazioari dagozkion aktak sinatzeko epeak betetzen direla zainduko dute. Kalifikazioak epearen barruan argitaratzen ez badira, neurriak hartuko dira. Hori alde batera utzita, ikastegietako zuzendaritzak edo dekanotzak oharra bidali ahalko die eginbehar hori bete ez duten irakasleei.

***21. artikulua.*** *Deialdi ofizialetako kalifikazioen ziurtagiria*

Ikasle guztiek deialdi ofizialetan lortutako kalifikazioen doaneko ziurtagiria jaso ahal izango dute, eskatuz gero. Dokumentu horretan jasoko dira ikasleak ikasturte horretan matrikulan izan dituen irakasgaien kalifikazioak. Ikastegiko idazkaritzak emango du dokumentua, ikastegiko administratzaileak edo bulegoko buruak sinatuta. Informaziorako baino ez da izango.

***22. artikulua.*** *Kalifikazioei buruzko erreklamazioak egiteko prozedura*

Honako prozedura hau beteko da:

a) Sailari erreklamazioa aurkeztea.

Ikaslea ez badago ados berrikuspenaren emaitzarekin, erreklamazio idatzia aurkeztu ahal izango dio saileko zuzendariari sei egun naturaleko epean, behinbetiko aktak argitaratu ziren egunetik hasita.

Azken kalifikazioen berrikusketei eta zuzenketei buruzko erreklamazioak ebazteko, sail bakoitzak gutxienez erreklamazio batzorde bat izendatuko du jakintza arlo bakoitzeko. Batzordea osatuko dute hiru irakaslek eta haien ordezkoek, eta ikastegiko Ikasleen Kontseiluko buruak edo hark eskuordetutako ikasleak. Batzordeburua irakasle iraunkor bat izan beharko da. Ezin izango dira batzordeko kide izan aurreko ebaluazio prozesuan parte hartu duten irakasleak.

Batzordeak erreklamazioa aztertuko du, eta, taldeko irakaslearen, edo hala badagokio, epaimahaiaren txostena jaso, egokitzat jotzen dituen ekintzak burutu eta erreklamazio egileari entzun ondoren, erreklamazioari buruzko erabaki arrazoitua emango du, gehienez ere, zortzi egun naturaleko epean, erreklamazioa jarri zen egunetik zenbatzen hasita.

Kalifikazioa aldatu behar izanez gero, aldaketa batzordeko irakasleek onartuko dute adostasunez, edo, behar izanez gero, bozketa bidez edo batez besteko nota kalkulatuta. Kasu horretan, akta zuzendu egingo da ikastegiko idazkariaren diligentziaren bidez.

Batzordeak erabakiaren berri emango die ikasleari, taldeko irakasleari eta ikastegiko idazkariari jakinaren gainean egon daitezen.

b) Ikastegiari erreklamazioa aurkeztea.

Ikaslea ez badago ados sailari aurkeztutako erreklamazioaren inguruan hartutako erabakiarekin, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dio, idatziz, ikastegiko zuzendariari, lau egun naturaleko epean, erabakiaren jakinarazpena jasotzen denetik hasita (bermatu egin beharko da epe horretan, gutxien dela, bi lanegun egongo direla).
Ikastegi bakoitzean erreklamazio batzorde bat eratuko da gutxienez, eta batzorde horretan, gutxien dela, honako kide hauek egongo dira: batzordeko burua, idazkari bat eta hirugarren irakasle bat. Ezin izango dira batzordeko kide izan erreklamazioa aurkeztu duen ikasleak lortutako kalifikazioan era batera zein bestera parte hartu duten irakasleak. Epaimahai honen bileretara ikastegiko Ikasleen Kontseiluko burua edo hark eskuordetutako ikaslea joango da.

Batzorde horrek, hamar egun naturaleko epean gehienez ere eta behar diren txostenak eskatu ondoren, kasua aztertu eta erabaki arrazoitua hartuko du. Ikasleari eta ikastegiko idazkariari jakinaraziko die erabakia,

jakinaren gainean egon daitezen eta behar diren ondorioak sor ditzan, baita saileko zuzendariari ere, hark taldeko irakasleari helaraz diezaion. Kalifikazioa aldatzea erabakiz gero, aldaketa batzordeko irakasleek onartuko dute adostasunez, edo, behar izanez gero, bozketa bidez edo batez besteko nota kalkulatuta. Kasu horretan, akta zuzendu egingo da ikastegiko idazkariaren diligentziaren bidez.

***23. artikulua.*** *Gradu amaierako lanen, ikerketa zientifiko teknologiko eta practicumen kalifikazioak berrikusteko eta kalifikazio horiei buruzko erreklamazioak egiteko prozedura*

Gradu amaierako lanei, ikerketa zientifiko teknologikoei eta practicumei 22. artikuluan ezarritako prozedura aplikatuko zaie. Hala ere, gradu amaierako lanak eta ikerketa zientifiko teknologikoak ebaluatzen dituzten epaimahaietan sailetik kanpoko kideak ere egoten direnez, erreklamazioa, lehendabizi, ikastegiko Erreklamazio Batzordeari aurkeztuko zaio.

Era berean, practicumak irakaskuntzaren ardura duen ikastegiaren menpe daudenean, eta ez sail baten menpe, kalifikazioa tutorearekin berrikusi ondorengo emaitzaren aurkako erreklamazioa ikastegiko Erreklamazio Batzordeari aurkeztuko zaio, lehendabizi.

***24. artikulua.*** *Gora jotzeko errekurtsoa*

Ikastegiko Batzarraren erabakiaren aurka interesatuak gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango dio errektoreari, jakinarazpena hartu eta hilabeteko epean. Honek, saileko eta ikastegiko Erreklamazio Batzordeen txostenak ikusi eta beharrezko dituen aholkuak jaso ondoren, erabakia emango du, eta erabaki horrek amaiera emango dio administrazio bideari.

***25. artikulua.*** *Beste proba bat egitea*

Ikasleak beste proba bat egiteko eskubidea izango du honako kasu hauetan:
a) Azken kalifikazioa jartzeko probaren zati bat programan ageri ez ziren gaien ingurukoa izan bada edo, programan agertu arren, irakasleak landu ez zituen gaien ingurukoa.

b) Probak egin aurretik ikasleek ezagutzen ez zuten ebaluazio sistema erabili badu irakasleak.

c) Irakasleak venia docendi-rik ez badu.

d) Ezinbestez, baldintza fisiko edo bestelakoengatik, ikasleek ezin izan badute proba normaltasunez egin. Horrelakoetan, irakasleak egoera aztertuko du eta bere sailaren oniritziarekin eta ikastegiarekin koordinatuta, probak egiteko beste egun bat izendatu ahal izango du, har daitezkeen bestelako neurri bereziak baztertu gabe.

e) Ikastegiko Erreklamazio Batzordeak hala erabakitzen duenean, azterketaren emaitzak anormalak iruditzen zaizkiolako, suspentsoen kopuru askoz ere handiagoa egon delako arrazoiz espero zitekeena baino irizpide akademikoak kontuan hartuta, hots, titulazioaren testuingurua eta kasuan kasuko irakasgaiak.

f) Ebaluazio egunean ikaslea ospitaleratuta badago edo lehen mailako odolkidetasuna daukan senidea badago egoera horretan; egoera hori behar bezala egiaztatu beharko du osasun agiri egokiak aurkeztuta.

g) Lehen edo bigarren mailako odolkidetasuna daukan senidearen heriotza azterketa egunean edo aurreko lau egunetan; egoera egiaztatzeko beharrezko diren agiriak aurkeztu beharko dira.

f) edo g) ataleko egoeraren batean dagoen ikasleak egoeraren berri izan bezain laster jakinarazi beharko dio tutore akademikoari, eta gehienez ere, bi egun naturaleko epean, ebaluazio probarako zehaztutako egun ofizialaren biharamunetik kontatzen hasita.
Beste probarako zehaztutako eguna baino lehen aurkeztu beharko du egiaztagiria.

Ebaluazio-proba berria deialdiaren akta ixteko eguna baino lehen egin beharko da, eta akta berean jasoko da.

***26. artikulua.*** *Ebaluazio prozesuaren eta emaitzen azterketaren inguruko gorabeheren salaketak*

1. Ikasketen ebaluazio-prozesuaren inguruko salaketak ikastegietako zuzendariaren aurrean aurkeztuko dira, hark organo eskudunei bidera diezazkien, eta egokitzat hartzen diren kautelazko neurriak hartuko dira.

2. Zuzendariaren erabakien eta eskola-batzarren akordioen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da errektorearen aurrean, eta errektorearen erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari.

3. Kasuan-kasuko errektoreordetzak aztertuko ditu UPV/EHUko titulazioetako irakasgaietan ikasleek lortutako emaitza akademikoak, baldin eta emaitzak ohiz kanpokoak direla pentsarazten duten zantzuak badaude. Azterketa horretatik abiatuta, behar diren neurriak hartuko dira ikasleen emaitzak emaitza orokorretatik desbideratzen direnean. Ikastegiko ikasleen ordezkariei eman beharko zaie hartzen diren neurrien berri.

# III. KAPITULUA

## Ebaluazio bereziaren bidezko ebaluazioa

***27. artikulua.*** *Epaimahai bereziak*

1. UPV/EHUko ikastegia guztiek izango dute epaimahai berezia. Epaimahaiburua ikastegiko dekanoa edo zuzendaria izango da, baina horiek dekanotza- edo zuzendaritza-taldeko edozein kideri eskuordetu ahal izango diote eginkizun hori.
2. Ikastegiko idazkari akademikoak epaimahaiko idazkari lanak egingo ditu; hitza izango du, baina botorik ez. Epaimahaian, epaimahaiburuarekin eta idazkariarekin batera, ikastegiko sei irakaslek jardungo dute. Irakasle horiek jakintza-arlo desberdinetakoak izango dira, eta Eskolako batzordeak izendatuko ditu ikasturte bakoitzeko lehen hiruhilekoan. Epaimahai horren bileretara ikastegiko Ikasleen Kontseiluko burua edo hark eskuordetutako ikasle bat joango da; hitza izango du, baina botorik ez Jakintza-arlo bateko ordezkaria ezin bada epaimahaiaren bilerara joan, arlo horretako edo beste arlo bateko irakasle batek ordezkatu ahalko du, baina ikastegiko dekanoak edo zuzendariak horren berri jaso beharko du epaimahaiaren aktari erantsiko zaion agiri baten bitartez.

***28. artikulua.*** *Ebaluazio berezirako eskariak egiteko eta ebazteko epeak*

Ikasleek irakasgaiak ebaluazio bereziaren bidez gainditzeko eskariak egin ahal izango dituzte ikasturte bakoitzeko irailean eta martxoan. Eskaria egiteko azken eguna hilaren 5a izango da bi kasuetan. Ikastegiko epaimahai bereziak irailaren 15a edo martxoaren 15a baino lehen hartu beharko du erabakia, hurrenez hurren.

***29. artikulua.*** *Irakasgaiak ebaluazio bereziaren bidez gainditzeko eskariak egiteko bete beharreko baldintzak*

Irakasgaiak ebaluazio bereziaren bidez gainditzeko eskariak egin ahal izateko, honako baldintza guzti hauek bete beharko dira:

1. Ebaluazio bereziaren bidez gainditu nahi den irakasgaian matrikulatuta egotea eskaria egiten den ikasturtean

2. Titulazioan ebaluazio bereziaren bidez gainditu daitezkeen kredituen % 90 gaindituta edukitzea. Ezin izango da inola ere ebaluazio berezirik eskatu gradu amaierako lanerako (Proiektu industriala) eta txandakako fase, Ikerketa Zientifiko Teknologiko eta Atzerriko Misioa irakasgaietarako.

3. Gehienez ere, titulazioko kreditu guztien % 6ri dagozkion irakasgaien ebaluazio berezia eskatu ahal izango da. Salbuespena izango da irakasgai bakarrak titulazioko ECTS kredituen % 6 baino gehiago izatea.

4. Ikasleak ebaluazio bereziaren bidez gainditu nahi duen irakasgaiko hiru deialdi, behintzat, erabilita izatea.

5. Deialdiren batean, gutxienez, hiru puntuko kalifikazioa lortuta izatea.

Baldintza hauek betetzeak ez du esan nahi automatikoki irakasgaiak ebaluazio bereziaren bidez gaindituko direnik. Gainditzea edo ez gainditzea kasuan kasuko epaimahai bereziak adostu beharko du, kontuan izanda hurrengo artikuluan ezarritako irizpideak.

***30. artikulua.*** *Ebaluazio bereziaren bidezko ebaluazioetarako eskariak ebazteko irizpideak*

UPV/EHUko epaimahai berezi guztiek jarraian adierazten diren irizpideak erabiliko dituzte:

a) Ebaluazio berezirako eskaria jaso eta 29. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla baieztatu ondoren, epaimahai bereziek onartu egingo dituzte ondoko baldintzak betetzen dituzten eskari guztiak:

- Ikasleak irakasgaiko lau deialdi, behintzat, erabilita izatea.
- Deialdiren batean, gutxienez, lau puntuko kalifikazioa lortuta izatea.
- Gradu amaierako lana kenduta, titulazioa amaitzeko geratzen zaion azken irakasgaia izatea.

b) Ebaluazio berezia eskatzeko baldintzak bete arren aurreko atalean adierazitako baldintzak, irakasgaia ebaluazio bereziaren bidez gainditzea dakartenak, betetzen ez direnean, ikastegiko epaimahai bereziak honako hauek izango ditu kontuan eskaria ebazteko:

- Lehenik eta behin, ikastegiko batzorde akademikoak onartutako irizpideak, unean uneko ikasturteko matrikula aldia baino lehen argitaratuko direnak. Epaimahai bereziek onartu egingo dituzte irizpide horiek betetzen dituzten eskari guztiak.
- Ebaluazio berezia eskatzeko baldintzak bete arren ez badira betetzen ikastegiko batzorde akademikoak onartutako irizpideak, honako hauek hartuko dira kontuan eskaria ebazteko: ikaslearen espediente osoa (besteak beste, ikasketetan emandako denbora) eta ikaslearen errendimendu akademikoari zuzenean eragiten dioten egoera hauek, ikasleak berak alegatu eta justifikatu beharko dituenak:

  % 33ko desgaitasun maila edo handiagoa izatea; hiruhileko bat edo gehiago ematea gaixorik; lan arrazoiak; genero indarkeriaren biktima izatea; erditzea, adopzioa, harrera edo hiru urte baino gutxiagoko seme-alaben ardura izatea; ikaslearekin bizi den mendeko senidea zaintzea; goi mailako kirolaria izatea; ezohiko emaitzak izatea ebaluazio berezia eskatzen den irakasgaian, espedienteko gainerakoekin alderatuta; eta errendimendu akademikoari zuzenean eragiten dioten beste egoera batzuk, ikasleak alegatu eta justifikatuak.

  Ikastegiko epaimahai bereziak hartuko duen erabakia arrazoitu egin beharko da.

***31. artikulua.*** *Epaimahai bereziak eratzea*

1. Epaimahai bereziak balioz eratzeko, beharrezkoa izango da gutxienez kideen erdiak bertan egotea. Dena dela, epaimahaiburuak eta idazkariak, edo ordezkoek, egon beharko dute beti.

2. Epaimahaiko kideren batek irakasten duen irakasgairen baterako egin bada eskaria, ikastegiko zuzendariak ordezkoa izendatu beharko du.

***32. artikulua.*** *Epaimahai berezien erabakiak*

1. Eskaria aztertu baino lehenago, ikasleak izan duen ibilbide akademikoari eta ikasleak ebaluazio bereziaren bidez gainditu nahi duen irakasgaian izan duen parte hartzeari buruzko txostena egiteko eskatuko dio epaimahaiburuak irakasgaiaren ardura duen sailari. Txosten hori idatziz bidali beharko du sailak, arrazoiak emanda, 10 egun naturaleko epean.

2. Erabakia hartzeko, epaimahaiak kontuan izan beharko ditu aipatutako txostena eta ikaslearen espediente osoa.

3. Erabakia ez bada aho batez hartu, eta berdinketa gertatu bada, epaimahaiburuaren kalitateko botoak izango du lehentasuna.

4. Epaimahai bereziak eskariaren egileari helaraziko dion erabakian zehatz jasota egon beharko dira arrazoiak.

***33. artikulua.*** *Gora jotzeko errekurtsoa*

Epaimahai berezien erabakien aurka gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio graduko ikasketen arloko eskumena duen errektoreordetzari hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

***34. artikulua.*** *Epaimahai berezien bileren aktak*

1. Idazkariak bileraren akta egingo du, kasu bakoitzean hartutako erabaki arrazoitua jasota. Erabakia eskariaren aldekoa edo kontrakoa izango da, eta ez dago beste aukerarik.

2. Akta prozeduran interesatuak diren guztiei helaraziko zaie.

***35. artikulua.*** *Irakasgaia ebaluazio bereziaren bidez gainditzeko erabakiaren ondorioak*

1. Erabakia aldekoa bada, ikastegiko idazkari akademikoak honako ohar hau sartuko du eskaria egin duen ikaslearen espedientean: «5,0 – Ebaluazio bereziaren bidez gainditua».

2. Erabakia aldekoa izanez gero, ikasleak deialdi bat agortuko du. Epaimahai bereziak ez badu ematen irakasgaia gainditutzat, ikasleak ez du deialdi hori agortuko.

3. Espedientea barematzerakoan, ebaluazio bereziaren bidez gainditutako irakasgaiaren balioa 5,0 izango da.

4. Espediente akademikoan jasota ageriko da irakasgaia ebaluazio bereziaren bidez gainditu dela, eta data epaimahaiaren erabakiarena izango da.

***LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA***

UPV/EHUko Graduko Batzordeari ahalmena ematen zaio arautegi hau garatuko duten arau osagarriak emateko.

***DISPOSICIÓN DEROGATORIA***

Indargabetuta geratzen da UPV/EHUko Ikasleen Arautegiko V. tituluaren II. kapitulua, graduko ikasketa ofizialei dagokienez. Halaber, indargabetuta geratzen dira lehendik emandako zirkular, xedapen eta erabaki guztiak, arautegi honetan ezarritakoarekin bat ez datorren guztian.

***DISPOSICIÓN FINAL***

Arautegi hau 2017-2018 ikasturtean sartuko da indarrean.

# JARRAITZEKO ETA ENPRESA-BILAKETARAKO ARAUTEGIA

***1. artikulua.*** *Baldintza akademikoak*

1.1. Ikasleek jarraitzeko bete beharreko baldintza akademikoak:

a) Graduko titulazioren bateko lehen mailan lehen aldiz matrikulatzen den ikasleak maila horretako irakasgai guztietarako egin beharko du matrikula.

b) Ikasleak, gutxienez, lehenengo mailako kredituen %30 gainditu beharko du ohiko eta ezohiko deialdietan. Portzentaje hori kalkulatzeko onartutako kredituak ez dira kontuan hartzen.

Graduko lehen kurtsoko 60 ECTStatik 24 ECTS edo gehiago onartuta duen ikaslearen kasuan, gutxienez, lehen urteko kredituen %30 gainditu beharko du ohiko eta ezohiko deialdietan. Portzentaje hori kalkulatzeko onartutako kredituak ez dira kontuan hartzen.

c) Matrikulako bigarren urtearen amaieran, ikasleak lehenengo mailako kredituen %70 gaindituta izan beharko du gutxienez. Portzentaje hori kalkulatzeko onartutako kredituak ez dira kontuan hartzen.

Graduko lehen kurtsoko 60 ECTStatik 24 ECTS edo gehiago onartuta duen ikaslearen kasuan, gutxienez, lehen urtean matrikulatutako edo ordura arte eginiko kreditu guztien %70a gainditu beharko du ohiko eta ezohiko deialdietan. Portzentaje hori kalkulatzeko onartutako kredituak ez dira kontuan hartzen.

d) Matrikulako hirugarren urtean eta hurrengoetan, ikasleak ordura arte eginiko ECTSen %70 gainditu beharko du, gutxienez. Onartutako kredituak ez dira kontuan hartzen.

1.2. b), c) edo d) ataletan ezarritako baldintzak betetzen ez dituenak ezingo du ordura arte egiten ari zen ikasketekin jarraitu.

1.3. 1.2. atalean azaldutako egoeran dagoen ikasleak beste titulazio bateko ikasketak hasi ahalko ditu, balorazio irizpideen eta plazak esleitzeko ikasturte bakoitzerako zehaztutako irizpideen arabera (irizpideok Gobernu Kontseiluak onartzen ditu unibertsitateko titulazioetan sartzeko prozedurari buruzko legedia garatzeko). Bigarren titulazioan ikasten hasi eta ez badu titulazio bakoitzerako 1.1. atalean zehaztutakoa betetzen, ezin izango du beste ikasketarik egin UPV/EHUn, harik eta bi ikasturte UPV/EHUtik kanpo eman arte.

1.4. Enpresan hasteko baldintza akademikoak:

a) Lehen seihilekoan zehar, seihileko horretako kredituen % 60 gainditu beharko du. Portzentaje hori kalkulatzeko, lehen seihilekoan onartutako kredituak kontuan hartzen dira.

b) Bigarren seihilekoa amaitzean, lehen mailako kredituen % 70 gainditu beharko du. Portzentaje hori kalkulatzeko, lehen mailan onartutako kredituak kontuan hartzen dira.

c) Hirugarren seihilekoa amaitzean, lehen seihilekoko kredituen % 60 gainditu beharko du. Portzentaje hori kalkulatzeko, lehen seihilekoan onartutako kredituak kontuan hartzen dira.

d) Laugarren seihilekoa amaitzean, lehen mailako kredituen % 70 gainditu beharko du. Portzentaje hori kalkulatzeko, lehen mailan onartutako kredituak kontuan hartzen dira.

Hurrengo ikasturterako matrikulazio-aldian enpresan hasi ahal izateko baldintza betetzen ez duten ikasleek ezin izango dute “Alternantziaren lehenengo fasea” eta “Integrazio proiektuak” ikasgaietan matrikulatu.

Ikasle batek enpresan jarraitzen ez badu, arrazoiak argitzeko analisia egingo da. Enpresan ez jarraitzea ikaslearen jardunaren eta/edo jarreraren emaitza bada, itxaronaldi bat ezarri ahal izango da enpresa berri baterako aukera izan aurretik. Egoera horrek ondorioak izan ditzake ikasgai dual guztietan.

***2. artikulua.*** *Ikasturte bakoitzerako matrikula*

2.1 Ikasleak aurreko mailetan gainditzeke dituen irakasgai guztietan matrikulatu behar du.

2.2 Ikasleak gehienez 60 kreditu berritarako egin dezake matrikula. Guztira, kreditu berriak eta errepikatutako kredituak batuta, ezin izango da 90 kreditu baino gehiagorako matrikula egin.

2.3 Lehen matrikuletan, ikasleek derrigorrez matrikulatu* behar dute txandakatze-faseko kredituetan, baita txandakatze-fase bakoitzarekin lotutako proiektuen kredituetan ere (Txandakatze lehen fasea eta Integrazio-proiektuak; Txandakatze bigarren fasea eta Ikerketa zientifiko teknologikoa; eta Txandakatze hirugarren fasea eta Gradu Amaierako Lanaren proposamena aurkeztu), baldin eta 1.3. atalean ezarritako baldintzak betetzen baditu (*industria-proiektuaren/gradu amaierako lanaren kasuan izan ezik, industria-proiektua/gradu amaierako lana egiteko eta defendatzeko arautegian ezarritakoaren arabera).

Ikastetxeak erakunde bat jarriko du irakasgai horiek lehen matrikulan garatzeko; betiere prestakuntza osatzeko beharrezkoa den gutxieneko denbora gainditzen ez bada erakunde baten (2 ebaluazio txandakatze-fase bakoitzeko, hau da, 3 ikasturte akademiko). Epe hori igarotakoan, ikastetxeak ahalbidetuko du prestakuntzak iraun bitartean garatu ez diren proiektuetako irakasgaiak egiteko, eta, oro har, proiektu propioak erraztuko ditu

***3. artikulua.*** *Irakasgai bakoitzerako deialdi-kopurua eta azterketa-eskubideari uko egitea*

3.1 Ikasleak sei ebaluazio-deialdi izango ditu irakasgai bakoitzerako.

3.2 Ikasleak uko egin ahal izango dio ebaluazio-deialdiari, eta deialdi hori ez zaio kontuan hartuko.

3.3 Bosgarren, seigarren eta salbuespenezko deialdiak epaimahai batek ebaluatuko ditu, ezarritako arauei jarraituz.

Ikastegi guztietan, eta ikasleren bat bosgarren, seigarren edo salbuespenezko deialdian badago, aurreko paragrafoan adierazitako epaimahaia osatuko da, eta ikasturtearen lehenengo hiruhilekoan argitaratuko da epaimahaiaren osaera, kideen izen eta guzti. Epaimahaia osatzean, irakasleak aurreko deialdietan zuzentzaile lanetan jardun gabeak izan daitezela zainduko da, ahal den neurrian.

3.4 Behin sei deialdiak agortuta, ikasleak salbuespenezko deialdi bakar bat eska dezake UPV/EHUko errektoreari zuzendutako idatziaren bidez.

Salbuespenezko deialdia emateari buruzko erabakia UPV/EHUko errektoreak emango du, kontuan hartuta ikaslearen espediente akademikoa eta beste gorabehera batzuk.

3.5 Ikasleak uko egin ahal izango dio ebaluazio-deialdiari, eta ez du deialdi hori galduko. Kreditu horiek egindako kreditutzat joko dira, txandakatzea hasteko eta ikasten jarraitzeko ezarritako gutxieneko kreditu-kopururako. Enpresako prestakuntzarekin lotutako irakasgaien kasuan (hain zuzen, integrazio-proiektuak, ikerketa zientifiko-teknologikoa[1] eta txandakatze-faseak irakasgaiak), ikasleak ezin izango dio deialdiari uko egin, baldin eta prestakuntza enpresa batean jasotzen hasita badago.

1 Ikerketa zientifiko-teknologikoa ikasgaian, 5. eta 6. deialdietan uko egin ahalko da.

3.6 Irakasgai baterako deialdiak agortuz gero, ikasleak ezingo du unibertsitatean ordura arte egiten ari zen ikasketekin jarraitu.

***4. artikulua.*** *Matrikulako urte-kopurua*

4.1 Ikasleak matrikulako urte-kopuru mugatua izango du graduko ikasketak amaitzeko; zehazki, graduak dituen maila-kopurua eta beste bi urte gehiago izango ditu; hau da, sei matrikula-urte izango ditu graduko ikasketak amaitzeko.

4.2 Matrikulako urte horiek agortu ondoren ikasleak ez baditu graduko ikasketak amaitu, salbuespen gisa, eta behar bezala arrazoitu ostean, beste urte bat eska dezake. Horretarako, ikastegiko zuzendariari idatzia aurkeztu beharko dio. Honek erabakia hartzerakoan kontuan hartuko ditu ikaslearen ikasketen espediente akademikoa eta beste gorabehera batzuk.

4.3 Ikastegiko zuzendariak hartzen duen erabakiaren aurka, gorako errekurtsoa jarri ahalko zaio unibertsitateko errektoreari hilabeteko epean.

***5. artikulua.*** *Egoera bereziak*

5.1. Ikasleari ez zaizkio ezarriko 1.2., 1.3., 4.1. eta 4.2. artikuluetan zehaztutakoak, baldin eta honako egoera bereziren batean badago:

- Eskola-aldian ikaslea gaixorik egon bada hiruhileko batean baino luzeagoan. Egoera hori behar bezala egiaztatu beharko du.
- Objektiboki balora daitekeen beste egoeraren bat.

Egoera horietakoren batean egonez gero, alegazioa ikastegiko idazkaritzan aurkeztu beharko du ikasleak, zuzendariari zuzendutako idatziaren bidez, eta zuzendariak emango du erabakia.

***6. artikulua.*** *Arduraldi partzialeko ikasleak*

6.1 Arduraldi partzialeko ikasletzat joko dira 60 kredituz azpiko matrikula egiten duten guztiak.

Ikastegiko zuzendaritzak honako egoera hauetakoren batean dauden ikasleei baino ez die baimenduko arduraldi partziala:

1. %33ko ezgaitasun-maila edo handiagoa ofizialki aitortuta duten ikasleak. Ezgaitasuna eta ezgaitasun-maila agiri bidez egiaztatu beharko dituzte.

2. Adingabeak edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonak ardurapean izanik, familia-unitatea osatzen duten ikasleak. Egoera hori agiri bidez egiaztatu beharko dute.

3. Goi-mailako kirolari, teknikari eta epaileak edo errendimendu handiko kirolariak. Egoera hori agiri bidez egiaztatu beharko dute, indarreko legediaren arabera.

4. Presondegietan diren pertsonei buruzko UPV/EHUren protokoloa aplikagarri zaien ikasleak.

5. Barne-promozioko ikasleak. Honako hauek hartzen dira barne-promozioko ikasletzat: prestakuntza hastean txandakatze-faseko irakasgaia egingo duten enpresan bi urteko antzinatasuna dutenak.

6.2 Ikasleek beren matrikula arduraldi partzialera aldatzeko eskaera egin ahalko diote ikastegiko zuzendariari ikasturte bakoitzeko kudeaketa-egutegian adierazitako matrikula-aldaketaren data baino lehen, edo, matrikula egun horren ondoren egin badute, matrikula egin ondorengo bost egun baliodunen barruan.

6.3 Matrikulako urte-kopurua kalkulatzerakoan (4.1. atalean zehaztuta), arduraldi partzialeko matrikulak urte-erditzat hartuko dira.

6.4 Ikastegiko zuzendariak erabaki arrazoitua emango du, eta erabaki horren aurka, gorako errekurtsoa jarri ahalko zaio unibertsitateko errektoreari hilabeteko epean.

***7. artikulua.*** *Matrikula baliogabetzea*

7.1 Ikaslearen eskariari jarraituz matrikula baliogabetuz gero, ulertuko da ikasle horrek ez duela matrikularik egin, iraunkortasunaren ondorioetarako.

7.2 Ikasleak matrikula baliogabetzeko duen epea abenduaren 31n bukatuko da.

7.3 UPV/EHUk berak bere kabuz baliogabetuko du matrikula, baldin eta ikasleak ez badu betetzen matrikula egiteko zehaztutako baldintzaren bat edo ez badu matrikula ordaindu zehaztutako epeen barruan.

7.4 Nahiz eta ikasleek legeak agindutako epe eta moduan eskatu matrikula baliogabetzea, **ez zaie inolaz ere matrikularen zenbatekoa itzuliko,** salbu eta UPV/EHUko arautegian aintzat hartutako salbuespenezko egoerak betetzen ez badira.

***8. artikulua.*** *Prozedura*

8.1. Arautegi honekin zerikusia duten eskariak (3.4. atalean adierazitakoa salbu) ikastegiko zuzendariari zuzendu beharko zaizkio. Ondoren, hark hartutako erabakiaren kontra errekurtsoa jarri ahalko da errektorearen aurrean hilabeteko epean.

# INDUSTRIA-PROIEKTUA/GRADU AMAIERAKO LANA EGIN ETA DEFENDATZEARI BURUZKO ARAUTEGIA

***1. artikulua.*** *Helburua eta aplikazio eremua*

1.1. Arautegi honek ikastegiak ematen duen graduko ikasketa-planean zehaztutako industria-proiektua/gradu amaierako lanak (aurrerantzean GRAL) definitu, egin, defendatu, kalifikatu eta tramitatzeko irizpideak jasotzen ditu.

1.2. Eskola-batzorde bakoitzak arautegi hau garatu ahalko du ikastegi bakoitzean ematen den graduko titulu bakoitzaren ezaugarrietara moldatzeko. Edonola ere, ikastegi bakoitzak zehazten dituen arauak ikastegiko batzarrean onartu eta ikastegian bertan argitaratu beharko dira.

***2. artikulua.*** *Gradu amaierako lanaren izaera*

2.1. GRALa gauzatzeko, ikasle bakoitzak, banaka, proiektu, memoria edo azterlan orijinal bat egin behar du, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean, eta bertan graduko ikasketa-aldian jasotako prestakuntza-gaiak eta lortu dituzten ahalmen, gaitasun eta trebetasunak bildu eta garatuko dira.

2.2. GRALa titulazioarekin lotutako gaitasun orokorrak aplikatzeari eta oro har, ikaslearen ikasketa-arlokoak izango diren datu garrantzitsuak bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatzeari begira egingo da, ikasleak industriari loturiko gai nabarmenei buruzko gogoeta egin eta iritzia eman dezan, eta gogoeta eta iritzi horiek kritikoak eta logikoak izan daitezen.

2.3. Oro har, GRALa defendatu eta ebaluatu ahal izateko, egiaztatu egin beharko da ikasleak ikasketa planeko gainerako gai guztiak gainditutа dituela eta, hortaz, GRALari dagozkion kredituak izan ezik, graduko titulua lortzeko beharezkoak diren gainerako kreditu guztiak dituela.

2.4. Gradu amaierako lana Jabetza intelektualari buruzko legeak babestutako lana da. Horren ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lana egin duena izango da, GRALa esleitzeko dokumentuan bestelakorik zehaztu ez bada, ikaslearen beraren onarpenarekin eta indarreko legerian xedatutako baldintzen arabera.

***3. artikulua.*** *Izen-ematea eta deialdiak*

3.1 Gradu amaierako lanaren matrikula ikastegiak matrikula egiteko ezarriko duen epe orokorrean egingo da, edota kasuan kasuko ikasturtean zehar. Matrikula hori egiteko, ikasleak bete egin beharko ditu gradu amaierako lanaren defentsa egin ahal izateko betebeharrak eta, era berean, esleituta dituen kredituei dagozkien prezioak ordaindu beharko ditu. Matrikula berria behar izanez gero GRALa iraileko dieialdian gainditu ez izanagatik, matrikula urriko lehenengo egingo da.
Edozelan ere, GRALaren matrikula egin ahal izateko, ikasleak matrikulatuta izan beharko ditu ikasketa plana bukatzeko geratzen zaizkion irakasgai guztiak.

3.2 Matrikulak bi deialdi ofizialetan parte hartzeko eskubidea ematen du ikasturte bakoitzean, egutegi akademikoan ezarritakoaren arabera. Lana defendatu ez duten ikasleek edo ikasturtean ezarritako deialdietan gainditu ez dutenek berriro matrikulatu beharko dute hurrengo ikasturte akademikoan.

3.3 Ikasleek GRALa zein hizkuntzatan egin eta defendatu nahi duten zehaztuko dute.

3.4 GRALak hiru denbora-tartetan defendatu ahal izango dira ikasturte akademiko bakoitzean (otsaila, uztaila, iraila) Ikastegiak denbora-tarte bakoitzaren datak argitaratuko ditu ikasturtearen hasieran.

3.5 Gradu amaierako lanaren ebaluazioaren akta Ebaluazio Arautegiari jarraituz itxi beharko da, eta Epaimahaiko presidentearen ardura izango da akta behar bezala betetzea. Horrez gain, ikastegiko zuzendariari dagokio artikulu honetan ezarritakoa betetzen dela zaintzea.

***4. artikulua.*** *Zuzendaria, hura esleitzea eta lanerako gaia aukeratzea*

4.1. – Graduko irakasleek edo irakasle ohiek zuzenduko dute gradu amaierako lana. Irakaslearen ardura izango da ikasleari lanaren ezaugarriak azaltzea, ikasleari lana egiteko orientazioa ematea eta zehaztutako helburuak betetzen direla zaintzea, bai eta lanaren jarraipena egitea ere.

4.2. – Gradu amaierako lanak zuzendari bat baino gehiago izan ahalko ditu.

4.3. – Gradu amaierako lana unibertsitateaz kanpoko pertsonek zuzendu ahalko dute, baina, kasu horretan, graduko irakasle batek zuzendarikidea izan beharko du.

4.4. – Eskolako batzordeak, edo, hala dagokionean, hark eskuordetutako batzordeak ikasleek eta enpresek proposatutako gaiak baliozkoak diren ala ez aztertuko du, gradu amaierako lanaren lan-koadernoan ezarritakoan oinarrituta, eta zuzendariak esleituko ditu.

***5. artikulua.*** *Ebaluazio Epaimahaia*

5.1. – Epaimahaiak Eskolako batzordeak, edo, hala dagokionean, proiektu batzordeak ezarritako moduan eratuko dira, matrikulatutako ikasle kopurua eta egin diren gradu amaierako lanen gaiak kontuan hartuta. Edonola ere, bermatu egin beharko da epaimahaiak egongo direla bi hizkuntza ofizialetarako.

5.2. – Epaimahai bakoitza hiru kidek eta gutxienez, ordezko batek osatuko dute, eta guztiak izan beharko dira graduko titulua irakasten den ikastegiko irakasleak.

5.3. – Epaimahai bakoitzean, presidente bat egongo da, idazkari-zereginez ere arduratuko dena.

***6. artikulua.*** *Gradu amaierako lanaren aurkezpena eta defentsa*

6.1.– Ikasleek gradu amaierako lana euskarri informatikoan eman beharko dute, ikastegiak ezarritakoaren arabera. Ikastegiak kopia bana (elektronikoa) helaraziko die Ebaluazio Epaimahaiko kideei.

6.2.– Ikasleak aurrez aurre defendatu beharko du gradu amaierako lana.

6.3.– Graduan eskolak emateko erabili diren hizkuntzetako edozeinetan egin, aurkeztu eta defendatu ahalko da lana, gradu amaierako lana egin den enpresarekin adostuta eta hark onartuta, baldin eta hizkuntza horiek menperatzen dituzten epaimahaiak osatu ahal badira. Edonola era, gradu amaierako lana autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin eta defendatzeko eskubidea bermatuko da.

6.4.– Ikasle bakoitzak gradu amaierako lanaren defentsa egiteko gehienezko denbora tarte bat edukiko du eta denbora tarte horretan bere lanaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azaldu beharko ditu; ondoren, epaimahaiko kideek egin diezazkioketen galdera, argibide, iruzkin edo iradokizunei erantzunez.

***7. artikulua.*** *Ebaluazioa eta kalifikazioa*

7.1. – Ikaslearen aurkezpena bukatutakoan, epaimahaiak ikasleari eman beharreko kalifikazioa eztabaidatuko du gradu amaierako lanaren lan-koadernoan jasotako irizpideen arabera.
7.2. – Ikasleak lana gainditzen ez badu, epaimahaiak lana hobetzeko iradokizunak jasotzen dituen txosten bat helaraziko dio ikasleari, lana berriz ebaluatzen denerako.

7.3. – Kalifikazioa 0tik 10era bitarteko zenbakizko eskalan emango da, hamartar bakarrarekin, eta kalifikazio hori letraz ere adieraziko da:

——— Aurkeztu gabe (AG) 0

– 4,9: Suspentso (S).

5,0 - 6,9: Nahiko (N).

7,0 - 8,9: Oso ongi (OO).

9,0 - 10: Bikain (B).

Deialdiren batean defentsa-eskubideari uko eginda, aurkeztu gabe jarriko da.

Defentsa-aldi bakoitza amaitzean, gradu amaierako lana defendatzean kalifikaziorik onenak lortu dituzten ikasleen % 5i «ohorezko matrikula» eman ahal izango zaio, betiere, 9,4 kalifikazioa edo altuagoa lortu badute, epaimahaiak hala uste badu.

7.5 – Gradu amaierako lanen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak Unibertsitateko ebaluazio arautegiari jarraituz egingo dira baina epaimahaia tartean dagoenez, ebaluazioaren lehenengo berrikuspena epaimahaiak berak egingo du eta ondoren ikastegiko erreklamazio batzordeak emango du ebazpena; ebazpen horren kontra gorako errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio unibertsitateko errektoreari.

7.6 – Nolanahi ere, gradu amaierako lanen kalifikazioak urriaren 31 baino lehen ageri behar du matrikulatutako ikaslearen espedientean, gai honi dagokion atalean.

# GRADUKO IKASKETETAN KREDITUAK TRANSFERITZEKO ETA AITORTZEKO ARAUTEGIA

# I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

***1. artikulua.*** *Aplikazio-eremua*

Ondorengo arauak orokorrak dira, eta UPV/EHUko ikastegietan edo UPV/EHUri atxikitako ikastegietan graduko ikasketa ofizialak egiteko eskatutako kredituen aitorpen- eta transferentzia-eskariei aplikatuko zaizkie.

***2. artikulua.*** *Eskumena*

1. Gai honetan, UPV/EHUko organo hauek dute eskumena: errektorea edo hark eskuordetutako errektoreordea, eta ikastegiko Batzorde Akademikoa.

2. Errektoreari edo hark eskuordetutako errektoreordeari dagokio kredituen aitorpen eta transferentziarako ekintzak koordinatzea eta bultzatzea, eta administrazio-bideko errekurtsoak ebaztea.

3. Ikastegietako batzorde akademikoei dagokienez, batzorde bakoitzak bere ikastegian ikasketak baliozkotzeko aurkeztutako eskaerak ebatziko ditu.

# II. KAPITULUA. KREDITUAK AITORTZEA

***3. artikulua.*** *Definizioa*

Kredituak aitortzea ikasle batek ikasketa ofizialetan (amaituak edo amaitu gabeak) eskuratutako kredituak onartzea da. Ikasketa horiek uneko ikasketen bestelakoak izango dira, eta UPV/EHUn edo beste unibertsitate batean (Estatukoa edo atzerrikoa) eginak. Aitortutako kredituak UPV/EHUn matrikulatutako titulu ofiziala lortzeko egindako kreditutzat hartuko dira.

Halaber, bestelako goi-mailako ikasketa ofizialetan edo beste titulu batzuk lortzeko aukera eskaintzen duten unibertsitate-ikasketetan egindako kredituak ere aitor daitezke.

Egiaztatutako lan-esperientzia eta esperientzia profesionala ere kreditu gisa aitortu ahalko da titulu ofiziala eskuratzeko, betiere, esperientzia horrek zerikusia badu tituluari berezkoak zaizkion gaitasunekin.

Ez dira inolaz ere aitortuko gradu-amaierako lanei dagozkien kredituak.

***4. artikulua.*** *Eragina*

Kredituak aitortzeak eragin hau izango du: ikasleak aitortu gabeko kredituak baizik ez ditu egin beharko, tituluaren kreditu guztiak bete arte.

***5. artikulua.*** *Helburua*

Honako hauek aitor daitezke:

a) Ikasleak unibertsitateko ikasketa ofizialetan lortutako kredituak

b) Goi hezkuntzako espainiar titulu ofizial hauek eskuratzeko egin beharreko ikasketak:

1. Goi-mailako irakaskuntza artistikoetako tituluak.

2. Arte plastikoetako eta diseinuko goi-mailako teknikarien tituluak.

3. Lanbide Heziketako goi-mailako teknikarien tituluak.

4. Goi-mailako kirol-teknikarien tituluak.

c) Titulu ez-ofizialak eskuratzeko aukera eskaintzen duten unibertsitate-ikasketetan egindako kredituak.

d) Egiaztatutako lan-esperientzia eta esperientzia profesionala.

e) Curriculumari ez dagozkion kanpo-praktika akademikoak, kasuan kasuko ikasketa-planak hala aurreikusten duenean.

f) Lanbide Heziketako goi-mailako teknikarien kanpo-praktikak edo esperientzia profesionala, atzerrian eginak eta arautegian ezarritakoaren arabera.

g) Kultura- eta kirol-ekintzak, ikasleak ordezkatzeko lana eta elkartasuneko zein lankidetzako jarduerak.

***6. artikulua.*** *Irizpide orokorrak*

Kredituak aitortzeko, honako irizpide orokor hauek erabili behar dira:

Oro har, aitortzeko unitatea irakasgaia izango da; nolanahi ere, hautazkoak aitortzean, kreditu-kopuru jakin bat aitortu ahal izango da, gainditutako kredituei lotutako gaitasun eta ezagutzen arabera eta gauzatutako gainerako jardueren arabera. Hori dela-eta, ikasleak nahitaez aurkeztu beharko du UPV/EHUn egiten ari den tituluan kredituak aitor diezazkiotela eskatzeko argudiatutako gaitasunei buruzko nahikoa informazio.

1. UPV/EHUko ikastegiek batzorde akademikoek proposaturiko aitorpen automatikorako taulak onetsiko dituzte, hala egiterik dagoenean. Taula horiek etengabe eguneratuko dira, bertan aldaketak eginez aldaketa horiek sortu ahala, horretarako ezarritako prozedurari jarraituz. Ikastegietan derrigorrez argitaratu beharko dira aitorpen automatikorako hasierako taulak, baita taula horien ondorengo eguneratzeak ere.

***7. artikulua.*** Ikasleak unibertsitateko ikasketa ofizialetan lortutako kredituak

1. Oinarrizko prestakuntzan gainditutako kredituak:

a) Jakintza-arlo bereko ikasketetako oinarrizko prestakuntzako 36 kreditu aitortuko dira, gutxienez.

b) Eskuratu nahi den graduko tituluaren jakintza-arloko oinarrizko prestakuntzako beste gai batzuetan lortutako kredituak ere aitortuko dira.

2. Nahitaezko irakasgaietan gainditutako kredituak:
Tituluko nahitaezko irakasgai espezifikoetako kredituak aitortuko dira, baldin eta titulu berriaren ikasketa-planeko irakasgaien gaitasun eta ezagutzekin bat badatoz.

1. eta 2. ataletan aipatutako kasuetan, egokitzapena irizpide hauen arabera balioetsiko da:

a) Lanbide arautuetarako sarrera izateagatik Gobernuak zehaztutako baliozkotze-baldintzak dituzten ikasketetan, dagokion ministerioaren aginduak zehaztutako irakasgai edo moduluetako kredituak aitortuko dira.

b) Titulu guztietan aitortuko dira antzeko gaitasun-mota zein -maila ematen duten ikasketak, baita izaera zein hedadura kontuan hartuta gutxienez edukien % 75ean bat datozen ikasketak ere. Antzekotasuna ez da derrigorrez irakasgai bakoitzean aurkitu behar; aitzitik, moduluka aurki daiteke, edo, halakorik ezean, antzekoak izan eta elkarri egokitzeagatik aitorpenerako aukera ematen duten irakasgai-multzoetan. Era

berean, ez da beharrezkoa izango irakasgai horiek izaera bera izatea (oinarrizkoak, nahitaezkoak edo hautazkoak).

3. Hautazko irakasgaietako kredituak: Tituluak ematen duenaren antzeko gaitasun-mota zein -maila duten irakasgaietako kredituak aitortuko dira, edukien arteko egokitzapenaren beharrik izan gabe.

4. Lanbide Heziketako goi-mailako teknikarien atzerrian egindako kanpo-praktiketako edo atzerriko esperientzia profesionaleko kredituak: Kanpoko praktiketako kredituak aitortu ahal izango dira, praktika horiek tituluak eskatzen duen iraupen bera edo handiagoa badute eta haien ezaugarriak zein izaera tituluak eskatzen dituenaren antzekoak badira.

***8. artikulua.*** *Ikasleak goi-mailako beste ikasketa ofizial batzuetan lortutako kredituak.*

Kredituak aitortzeko, honako irizpide orokor hauek erabili behar dira:

1. Oro har, ikasketa osoak bakarrik aitortu ahalko dira; nolanahi ere, honako hauek ere aitortu ahalko dira, ECTS kredituetan ofizialki egiaztatuz gero: goi-mailako ikasketa artistikoko espainiar titulu ofizialak eskuratzeko gainditutako ikasketa-aldiak eta Lanbide Heziketako goi-teknikarien edo kirol-irakaskuntzako goi-teknikarien titulu ofizial bateko espezializazio-ikastaroak.

2. Atzerriko tituluak ere aitortu ahalko dira, baldin eta homologatuta badaude goi mailako hezkuntzako titulu ofizialen batekin.

3. Ikasketak aitortzeko, honako hauek hartuko dira kontuan: graduko tituluko irakasgaien eta goi teknikarien tituluko modulu edo irakasgaien arteko egokitzapena, gaitasunei, ezagutzei eta ikaskuntzako emaitzei dagokienez.

Aitorpena lanbide arautu batean jarduteko aukera ematen duten ikasketak egiteko eskatuz gero, egiaztatu egin beharko da alegatutako ikasketek bete egiten dituztela beharrezko gaitasun profesionala bermatzen duen ikasketa-planeko baldintzak.

4. Unibertsitateak eta dagokion hezkuntza-agintaritzak hitzartuta harreman zuzena badago alegatutako tituluaren eta egin nahi den graduko unibertsitate-tituluaren artean, kredituak hitzarmen horretan ezarritakoaren arabera aitortuko dira; hitzarmenean gutxieneko ECTS kopuruaren aitorpena bermatuko da.

5. Aitortutako ikasketek ezingo dute ikasi nahi den tituluko ikasketa-planeko kredituen %60.

***9. artikulua.*** *Titulu ez-ofizialak eskuratzeko aukera eskaintzen duten unibertsitate-ikasketetan egindako kredituak eta egiaztatutako lan-esperientzia nahiz esperientzia profesionala.*

1. Barneratutako gaitasun eta ezagutzen arteko egokitzapena aintzat hartuta, aitorgarriak izan daitezke titulu ez-ofizialak eskuratzeko aukera eskaintzen duten unibertsitate-ikasketetan egindako kredituak, baita egiaztatutako lan-esperientzia nahiz esperientzia profesionala ere, baldin eta esperientzia horrek zerikusia badu egin nahi den tituluaren berezko gaitasunekin, eta ikasleak emandako frogen bidez egiaztatzerik badago.

2. Lan-esperientzia edo esperientzia profesionala eta unibertsitate-ikasketa ez-ofiziala aintzat hartuta aitortutako kreditu kopurua ezingo da ikasketa-planeko kreditu guztien %15 baino handiagoa izan. Kreditu horiek aitortuz gero, ez da kalifikaziorik erantsiko, hortaz, ez dira kontuan hartuko espedientearen baremaziorako.

Hala eta guztiz ere, berezko tituluetako kredituen aitorpenak aipatutako kopurua gainditu ahal izango du, salbuespen gisa, titulu hori desagertu egin bada eta haren ordez titulu ofizial bat jarri badute. Horretarako, aitorpen horrek jasota egon beharko du ikaslea egiten ari den UPV/EHUko tituluaren ikasketa-planeko memoria egiaztatuan.

***10. artikulua.*** *Lanbide Heziketako goi-mailako teknikarien kanpo-praktikak edo esperientzia profesionala, atzerrian eginak.*

1. Lanbide Heziketako goi-mailako teknikarien kanpo-praktiketako kredituak onartuko dira, atzerriko lan-ikastegietan egindako egonaldien kasuan, betiere, egonaldiak 10 aste iraun badu gutxienez ere, eta graduko ikasketak hasi baino lehenago egin bada.

2. Atzerriko esperientzia laboraleko kredituak onartuko dira, atzerriko enpresetan egindako lanen kasuan, betiere, lan horiek 10 aste iraun badute gutxienez ere, eta graduko ikasketak hasi baino lehenago edo graduan egin badira.

3. Bi kasu horietan, kredituak onartuko badira, atzerriko ikastegiaren edo enpresaren ziurtagiri bat beharko du ikasleak, egonaldia eta egindako lanak zehatz-mehatz adierazteko. Ikastegiak edo enpresak sinatuta eta zigilatuta egon behar du ziurtagiri horrek. Ziurtagiria gaztelaniaz edo ingelesez idatzita egongo da. Jatorrizko ziurtagiria beste hizkuntza batean badago, haren itzulpen ofiziala (zinpekoa) eman beharko da.

***11. artikulua.*** *Kultura- eta kirol-ekintzak, elkartasuneko eta lankidetzako jarduerak, eta ikasleen ordezkaritza.*

1. UPV/EHUn matrikulatutako ikasleek unibertsitateko kultura- eta kirol-ekintzetan, elkartasuneko eta lankidetzako jardueretan eta ikasleen ordezkaritzan aritzeagatik kredituak aitortzea eskatu ahal izango dute. Unibertsitatean ikasten aritu diren bitartean gauzatutako ekintzak izan beharko dute, eta gehienez ere ikasketa-planeko 6 kreditu eskatu ahal izango dituzte horien truke, LOUko 46.2.i) artikuluaren arabera.

I. eranskinean jasota daude jardueren zerrenda eta bakoitzagatik urtean lor daitekeen gehieneko kreditu-kopurua (kontsultatu UPV/EHUko Graduko irakaskuntzetarako kudeaketa-arautegia). Dena den, jarduera batengatik behin bakarrik aitortu ahalko dira kredituak.

2. Ikasleen ordezkaritza-lanetan aritzeagatik kredituak eskuratzeko, ikasleak egindako lanen memoria bat aurkeztu beharko du, Ikasleen Errektoreordetzak ezarritako ereduaren arabera, eta beharrezkoa izango da kasuan kasuko kide anitzeko organoaren bileren % 75era joan izana gutxienez.

Taldeetako ordezkariek euren ikastegian aurkeztu beharko dute memoria, kredituak eskuratzeko (ikastegi bakoitzak diseinatuko du bere eredua).

3. Kirol-ekintzengatik kredituak aitortzeko, interesdunek UPV/EHUko Kirol Zerbitzuaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Kirol Zerbitzuak dokumentu honen II. eranskinean zehaztutako baliokidetasunak izango ditu kontuan. (kontsultatu UPV/EHUko Graduko irakaskuntzetarako kudeaketa-arautegia).

4. Prestakuntzarako kultura-ekintzengatik kredituak emateko, honako hauek hartuko dira aintzat:

   a) Atal honetan, unibertsitateko udako ikastaroak eta UPV/EHUko ikastegiek edo sailek antolatutako ikastaroak, mintegiak, biltzarrak eta halakoak hartuko dira kontuan, baldin eta eskaria egiten zaion ikastegiak ontzat ematen baditu. Egindako 25 orduko kreditu bat emango da. Era berean, unibertsitateko errektoreordetzek antolatutako jarduerak ere onartuko dira. Kasu horretan, unibertsitateko ikastegi guztietarako balioko dute, eta 25 orduko kreditu bat emango da.

   b) Kontuan hartuko dira, halaber, beste unibertsitate batzuetako udako ikastaroak, eta 50 orduren truke kreditu bat emango da.

5. Elkartasuneko eta lankidetzako jarduerengatik kredituak emateko, honako hauek hartuko dira aintzat:

   a) UPV/EHUko Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate Hedakuntzako Errektoreordetzak (edo haren ordez diharduenak) kudeatu edo babestutako boluntariotza- edo lankidetza-jardueretan parte hartzea. Kreditu bat emango da 30 orduko.

b) Ezgaitasunak dituzten ikasleei lagun egiteko programan edo UPV/EHUko Ikasleen Errektoreordetzak kudeatu edo babestutako antzeko programetan parte hartzea. Kreditu bat emango da 30 orduko.

c) Unibertsitateko ikastegiek edo UPV/EHUko Ikasleen Errektoreordetzak ikasle berrien begirale izan eta haiei lagun egiteko antolatutako ekintzetan parte hartzea. 3 kreditu emango dira gehienez.

6. Ikastegiko idazkari akademikoak, ikasleak aurkeztutako dokumentazioa ikusita, hautazko kredituak aitortzeko erabakia emango du, kreditu horiek ikaslearen espedientean sar daitezen. Horretarako, ikasleak kreditu bakoitzaren prezioak ordaindu beharko ditu aurretik.

7. Unibertsitateen Lege Organikoko 46.2.i) artikuluaren bidetik ikasleari aurreko beste ikasketa batzuetan kredituak aitortu bazaizkio UPV/EHUn edo beste unibertsitateren batean, ikasten ari den tituluan ere eskatu ahal izango du aitorpena.

***12. artikulua.*** *Atzerriko ikasketengatik kredituak aitortzeko irizpideak*

1. Atzerriko goi-mailako titulu baten ikasketa-planean gainditutako irakasgaiak aitortzerik izango da, baldin eta horiekin lortutako gaitasunak eta horien edukia zein eskola-orduak graduko titulu ofizial baten ikasketa-planeko irakasgai baten edo gehiagoren baliokideak badira.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako ikasketa partzialengatiko aitorpena honako kasu hauetan eska daiteke:

a) Atzerriko sistema batean egindako ikasketak amaitu gabe utzi eta ondorioz kasuan kasuko titulua lortu ez denean.

b) Ikasketak amaituta atzerriko titulua lortu, eta ikasleak titulu hori Espainiako unibertsitate-titulu ofizial batekin homologatzeko eskaerarik egin ez duenean.

c) Atzerriko tituluaren homologazioa eskatu, eta homologazio horri uko egin zaionean, betiere uko egiteko arrazoia goi mailako atzerriko tituluak homologatzeko eta baliozkotzeko erari buruzko otsailaren 20ko 285/2004 Errege Dekretuaren 5. artikuluan jasotzen direnetako bat izan ez bada.

d) Ikasketak amaituta atzerriko titulu bat lortu, eta titulu horren edo graduaren homologazioa lortu denean, egindako irakasgaiengatiko kredituak aitortzerik egongo da, horiek homologatutakoaz bestelako titulu bati aplikatzen bazaizkio.

3. Espedienteko batez besteko nota kalkulatze aldera, aitortutako kredituen balioa atzerriko ikastegiko kalifikazioari dagokiona izango da puntutan. Horretarako, dagozkien baliokidetzak ezarri beharko dira atzerriko ikastegian lortutako zenbakizko kalifikazio edo kalifikazio kualitatiboen eta irailaren 5eko 1125/2003 EDn ezarritako kalifikazioen artean (1125/2003 EDren bidez, Europako kreditu-sistema eta unibertsitateko titulu ofizialetako kalifikazio-sistema ezartzen dira, baita Estatu osoan izango duten balioa ere).

4. Izapideak egiteko, kredituak aitortu aurretik, UPV/EHUk gaztelania hizkuntza ofizialtzat ez duten estatuetako herritar diren ikasleentzat egoki iritzitako hizkuntza-probak ezar ditzake. Ikastegi bakoitzak izango du proba horiek ezartzeko eskumena.

***13. artikulua.*** *Ingelesezko irakasgaiaren kredituak aitortzeko irizpideak (desagertzeko bidean dagoen irizpidea)*

Kredituak aitortzeko, honako hauek erabili behar dira:

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuan oinarrituriko B2 mailaren baliokidea den ingeleseko ziurtagiriaren jabe den ikasleak kredituen onarpena eska dezake 2023ko irailera arte (aitorpenak eskatzeko epearen barruan), eta baldin eta graduan lehen aldiz matrikulatu bada 2020/21 ikasturtean edo aurrekoetan.

Onarpena zuzena izango da baldin eta, B2 mailako edo baliokidea den ziurtagiriaren emate-dataren eta matrikula berriaren artean 4 urte baino gehiago igaro ez badira.

Aipatutako bi data horien artean 4 urte baino gehiago igaro diren kasuetan, ikasleak mailakatze proba bat egin beharko du B2 mailako hizkuntza-eskakizunen jabe dela egiaztatzeko, betiere, HEEMBren arabera. Ikasleak ez badu frogatzen aipaturiko B2 maila duenik, kredituen onarpena ez da aurrera eramango.

Ikasturte bakoitzean mailakatze proba bakarra egongo da eskolak adierazitako egunetan.

***14. artikulua.*** *1393/2007 EDren aurretik araututako ikasketak aitortzea*

1393/2007 EDren aurretik araututako ikasketei (diplomak, ingeniaritza teknikoak edo arkitektura teknikoak eta lizentziak, ingeniaritzak edo arkitektura) arautegi honetan graduko ikasketetarako ezarritako irizpide berak ezarriko zaizkie kredituak aitortzeko, berezitasun hauek aintzat hartuta:

1.– Irakasgaien kreditu-balioa kalkulatzeko, Unibertsitatearen Erreformarako Legearen UEL kredituak ECTS kredituen baliokidetzat hartuko dira, eta kredituak baino lehenagoko tituluetan urte osoko irakasgaien asteko orduak 3 ECTSren balioa izango du.

2.– UPV/EHUko Akademia Antolakuntzako eta Doktoregoko Batzordeak, ikastegiek hala proposatuta, graduko ikasketa eta master berrien eta UPV/EHUko lehengo tituluen arteko baliokidetza automatikoen taula onar dezake, eta zehaztu egin beharko du diplomadunek, arkitekto teknikoek, ingeniari teknikoek, lizentziadunek, ingeniariek edo arkitektoek zer gaitasun eskuratu zituzten titulu zaharretan eta zer irakasgai egin beharko dituzten graduko titulu edo master berriak lortzeko. Edonola ere, bi tituluak ikasketa-adar berekoak badira, adar horretako oinarrizko irakasgai guztiak aitortuko dira, kontuan hartuta lortutako tituluak ikasketa-adarreko oinarrizko gaitasunak ematen dituela.

# III. KAPITULUA. UPV/EHU-N KREDITUAK AITORTZEKO PROZEDURAK

***15. artikulua.*** *Izapideak*

Mugikortasuneko kredituen kasuan izan ezik (horiek arautegi espezifikoan xedatutakoaren mende daude), beste ikasketa edo ekintza batzuetan lortutako kredituak aitortzeko izapide hauek egingo dira:

1. Ikasleek kredituak aitortzeko eskaera eta beharrezko dokumentazioa aurkeztuko dituzte, argitaratzen den epean, matrikulatuta dauden ikastegiko idazkaritzan.

2. Eskatutako kreditu-aitorpena goi-mailako graduko prestakuntza-zikloetako ikasketetarako ofizialki onetsitako onarpen-tauletan badago, aitorpena automatikoki aplikatuko da, eta nota 5,0 izango da.

3. Ikastegian aurreko hiru ikasturteetan aurrekaririk egon bada –hau da, eskatutako aitorpena lehenago ere egin izan bada–, ikastegiko Antolaketa Akademikoaren eta Kalitatearen Batzordeak onartuko egingo du eskaera, inolako txostenen beharrik gabe, eta aitorpen hori aitorpen automatikorako tauletan sartuko du.

4. Kredituen aitorpena ez badago aurreko ataletan adierazitako kasuen artean, aitorpen-eskaerari dagozkion gaitasun eta edukiekin lotutako irakasgaiak emateaz arduratzen diren sailetara igorriko da eskaera. Ikasleak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, sailek txosten bat prestatuko dute, egindako kredituen bidez eskuratutako gaitasun eta edukiek aitortu nahi diren kredituen baitako gaitasun eta edukiekin zer-nolako

baliokidetza daukaten zehazteko. Txostena Sailak horretarako ezarritako sistemaren arabera egingo da, hamabost eguneko epean. Txosten horiek aztertu ondoren, ikasketak baliozkotzeko azpi-batzordeak eskaerak ebatziko ditu.

5. Graduko ikasketetako ikasketa-plan bera UPV/EHUko ikastegi batean baino gehiagotan eskaintzen bada, kredituen aitorpena automatikoa izango da, eta ofizioz aplikatuko da.

***16. artikulua.*** *Baldintzak eta aitorpen-eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak*

Kredituen aitorpena eskatzeko, nahitaezkoa da dagokion ikastegian eta ikasketa-planean matrikulatuta egotea; beraz, ikasleak ikastegi eta ikasketa-plan horretan plaza eduki beharko du, horretarako ezarritako prozeduraren arabera; alabaina, atzerriko unibertsitate-ikasketen aitorpenen kasuan, ez da beharrezkoa izango aurretik matrikulatuta egotea eskaera egin ahal izateko.

Aitorpen-eskaerarekin batera, interesdunak aitortu nahi dituen ikasketak edo jarduerak egiaztatzeko dokumentuak aurkeztu beharko ditu, zehazki, honako hauek:

1. Unibertsitateko ikasketa ofizialetarako:

a) Estatuan egindako unibertsitate-ikasketetarako:

- Ikaslearen ziurtagiri akademikoa (gainditutako irakasgaiak eta lortutako kalifikazioak adierazita), egindako ikasketak egiaztatzen dituena.
- Aitortu nahi den irakasgai bakoitzaren irakaskuntza-plana edo irakaskuntza-programa. Bertan, bereziki adierazi beharko dira eskuratutako gaitasunak, landutako edukiak, gauzatutako jarduerak eta ECTS kredituen balioa. Hori egiaztatzeko, kasuan kasuko programak aurkeztuko dira. Programa horiek ikaslearen jatorrizko ikastegiaren zigilua izan beharko dute.

b) Atzerrian egindako unibertsitate-ikasketa partzialetarako, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira, behar bezala legeztatuta eta zinpeko itzultzaile batek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetara itzulita:

- Baliozkotu nahi diren ikasketen maila eta ezaugarriak egiaztatzeko ziurtagiri ofiziala; bertan, gainditutako irakasgaiak eta lortutako puntuazioak ere jasoko dira.
- Ikasketa-plana edo egindako irakasgaien taula. Horri buruzko ziurtagiria dagokion ikastegiak egingo du eta bertan idatziko da baliozkotu nahi den titulazioa lortzeko zer irakasgai eskatzen diren.
- Aitortu nahi den irakasgai bakoitzaren irakaskuntza-plana edo irakaskuntza-programa. Bertan, bereziki adierazi beharko dira eskuratutako gaitasunak, landutako edukiak, gauzatutako jarduerak eta ECTS kredituen balioa. Dagokion ikastegiak behar bezala legeztatu beharko du aipatutako guztia jasotzen duen agiri hori.

2. Bosgarren artikuluko b) atalean adierazitako goi hezkuntzako espainiar titulu ofizialak lortzeko ikasketetarako, aitortu nahi diren ikasketen ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko da. Horretarako, aginte eskudunek emandako goi-mailako hezkuntzako titulu ofiziala aurkeztu beharko da, edo horren ordezko ziurtagiria.

3. Titulu ez-ofizialak eskuratzeko aukera eskaintzen duten unibertsitate-ikasketetan egindako kredituetarako, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Ikaslearen ziurtagiri akademikoa (gainditutako irakasgaiak eta lortutako kalifikazioak adierazita), egindako ikasketak egiaztatzen dituena.

- Aitortu nahi den irakasgai bakoitzaren irakaskuntza-plana edo irakaskuntza-programa. Bertan, bereziki adierazi beharko dira eskuratutako gaitasunak, landutako edukiak, gauzatutako jarduerak eta ECTS kredituen balioa. Hori egiaztatzeko, kasuan kasuko programak aurkeztuko dira. Programa horiek ikaslearen jatorrizko ikastegiaren zigilua izan beharko dute.

4. Lan-esperientziarako eta esperientzia profesionalerako, hura egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko da, eskatzaileari dagokion UPV/EHUko ikastegiak horretarako ezarritakoaren arabera.

5. Lanbide Heziketako goi-mailako teknikarien atzerriko kanpo-praktiketarako edo esperientzia profesionalerako, atzerriko ikastegiaren edo enpresaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko du ikasleak, egonaldia eta egindako lanak zehatz-mehatz adierazteko. Ikastegiak edo enpresak sinatuta eta zigilatuta egon behar du ziurtagiri horrek. Ziurtagiria euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez idatzita egongo da. Jatorrizko ziurtagiria beste hizkuntza batean badago, dokumentu horren itzulpen ofiziala, zinpeko itzultzaile batek egina, eman beharko da.

6. Kultura- eta kirol-ekintzetarako, ikasleak ordezkatzeko lanetarako eta elkartasuneko zein lankidetzako jardueretarako, egiaztagiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Ikasleak ordezkatzeko lanen truke kredituak aitortzeko, gauzatutako jarduera justifikatzeko memoria. Taldeetako ordezkariek euren ikastegian aurkeztu beharko dute memoria, kredituak eskuratzeko (ikastegi bakoitzak diseinatuko du bere eredua).
- Kirol-ekintzengatik kredituak aitortzeko, UPV/EHUko Kirol Zerbitzuaren ziurtagiria aurkeztu behar da. Kirol Zerbitzuak dokumentu honen II. eranskinean zehaztutako baliokidetasunak izango ditu kontuan (kontsultatu UPV/EHUko Graduko irakaskuntzetarako kudeaketa-arautegia).
- Prestakuntzarako kultura-jarduerak aitortzeko, jarduera antolatu duen erakundearen ziurtagiri bat. Bertan, argi eta garbi adierazi beharko dira jarduera bera eta, gutxienez, haren iraupena eta epea.

***17. artikulua.*** *Ebazpena*

Erabakiak hartzeko eta jakinarazteko, gehienez hiru hilabete izango dira, ikasleak bere ikastegiko idazkaritzan aitorpen-eskaera aurkeztu eta hurrengo egunetik hasita.

Aitorpen-eskaera ebatzi duen Batzorde Akademikoaren erabakiaren kontra gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da errektorearen aurrean, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean.

Gehienezko epea igaro ostean ez bada berariazko jakinarazpenik egin, eskatzaileak administrazio-isiltasun bidez ukatutzat joko du.

Aldekoak ez diren txosten eta erabakiek, aitorpen-eskaerari uko egiten diotenek, arrazoituak izan beharko dute.

***18. artikulua.*** *Aitortutako kredituak ikaslearen espedientean idatziz jasotzea*

1. Ikasleak aitorpenaren bidez gainditzen dituen kredituak onartutakotzat jo, eta hala jasoko dira bere espedientean; hala, idatziz jasoko dira ikasketak gainditzeagatik egindakotzat jotako ikasketa-planeko irakasgaiak eta onartutako kredituei dagozkien irakasgaiak. Hitzez hitz idatziz jasoko da jatorriko espedienteko irakasgaien tipologia, kredituen kopurua eta lortutako kalifikazioa, eta ikasketak zer unibertsitatetan egin diren adieraziko da. Inskripzio hori Tituluaren Europako Gehigarrian jasoko da.

# IV. KAPITULUA. KREDITUAK TRANSFERITZEA

***19. artikulua.*** *Definizioa*

Kredituak transferitzea ikasleak UPV/EHUn edo beste unibertsitate batean lehendik egindako ikasketa ofizialetan lortutako kredituak, titulu ofizial bat lortzea ekarri ez dutenak, ikaslearen espedientean sartzea da.

***20. artikulua.*** *Eragina*

Ikasleak egindako ikasketen agiri akademiko ofizialetan jasoko dira UPV/EHUn edo beste unibertsitate batean ikasleak lehendik egindako ikasketa ofizialetan lortutako kredituak, titulu ofizial bat lortzea ekarri ez dutenak.

***21. artikulua.*** *Helburua*

UPV/EHUko edo beste unibertsitate bateko ikasketen lekualdatze-kasuetan egingo da, edo ikasleak bukatzeke utzitako unibertsitate-ikasketa egiaztatuez bestelako ikasketei ekiten dien kasuetan.

***22. artikulua.*** *Izapideak*

Kreditu-transferentzia ofizioz egingo da, ikasleak ikasketa-lekualdatzeagatiko matrikula egiten duenean; haren espedientean jasoko dira UPV/EHUn edo beste unibertsitate batean lehendik egindako ikasketa ofizialetan lortutako kreditu guztiak, titulu ofizial bat lortzea ekarri ez dutenak.

Transferitutako kredituak ikaslearen espedientean idatziz jasoko dira, 16. artikuluko lehenengo paragrafoan ezarritako moduan.

**XEDAPEN GEHIGARRIAK**

**Bakarra. Graduko planak desagertzea.**

Graduko tituluek UPV/EHUren ikasketa-eskaintzaren barruan egoten jarraituko dite, tituluaren ezarpena eskatzean adierazitako baldintzak eta konrpomisoak betetzen diren bitartean, tituluak onarpen ofiziala izaten jarraitzen duen bitartean eta gizartearen zein ikasleen aldetik benetako eskaera dagoen bitartean.

Titulu bat desagertarazteko, Eskola Batzordeak, Akademia Antolakuntzako eta Doktoregoko Batzordeak, Gobernu Kontseiluak eta Gizarte Kontseiluak eskaera hori justifikatzeko memoria bat prestatu eta izapidetu beharko dute.

Oro har, ikasketa-plana apurka-apurka desagertuko da, mailaz maila. Desagertutako maila bakoitzaren irakasgaietarako ez da irakaskuntzarik izango, baina ikasleek azterketa egiteko lau deialdi izango dituzte hurrengo bi ikasturteetan. Ikasleek goian aipatutako deialdiak azterketa gainditu gabe agortu badituzte, ikasketekin jarraitu nahi dutenek ikasketa-plan berrian sartu beharko dute, dagokien egokitzapenaren edo kasuan kasuko aitorpenaren ondotik.

HAUTAZKO KREDITUAK ONARTZEKO, KONTSULTATU UPV/EHU-KO GRADUKO IRAKASKUNTZETARAKO KUDEAKETA-ARAUTEGIA EDO WEB-ORRI HAU:

http://www.ehu.eus/web/estudiosdegrado-gradukoikasketak/aitorpenak-baliozkotzeak-eta-homologazioak